



**Xabier Irastorza
ordiziar
apaiz gaztea**

**Goierritarrak
Lenin mendira**

**Oier Romero
Austrian
errugbilari**



**3 ORDAINDU ETA
4 KARRETE ERREBELATU**

**ZUZENKETAK ARGAZKIZ-ARGAZKI
BERTAKO ETA EGUNEROKO ZERBITZUAK**

FOTOETNE

FUJIFILM

FOTO ORDIZIA

ARGAZKI-DENDA

DOMINGO UNANUE,1

(GELTOKI PAREAN)

ERREBELATUA ORDUBETEAN



13 x 18

edo

10 x 15

beti **Kodak**

paper eta kimikoekin



Ertz zuriarekin edo gabe

KOPIATIK KOPIARA SISTEMA

Argazkiak handitu edo txikitu daitezke

6x9tik 20x30era **ORDUBETEAN**

BERRIA!

PLOTTER ZERBITZUA

Edozein argazki **91** cm-ko zabaleraraino handitu daiteke

Paper kalitate ezberdinak aukeran

Non zer

3: HAMABOSTALDIAN

NABARMENDI:

Beasainen osasun-zentro berria.

4: Mikel Uribe ertzainaren aurkako atentatua.

6: AHOLKUA:

Zorion Intxausti.

7: TXANDAKA:

Alaitz Sarasola.

8: KATE MOTZEAN:

Javi Carrizo

9: Sara Cozar, Goenkalen

10-11: Ordiziako jaietako egitaraua

12-13: Xabier Insausti apai gaztea

14-15: Lenin mendira Goierriko espedizioa

17: Mikel Martikorena korrikalaria

18-19: Oier Romero errugbilaria Austrian

20-30 KRONIKAK

31: KILOMETROAK 2001

32: DEBALDEKO IRAGARKIAK

33: AGENDA

34: FOTO ZAHARRA:

1970eko Ordiziako jaiak



Beasainen osasun-zentro berria eraikiko da

Uztailaren 10eko Eusko Jaurlaritzako Gobernu Bileran, Eusko Jaurlaritza, Osakidetza eta Beasaingo Udalaren arteko lankidetzak hitzarmenaren izenpe- tzea baimendu zen. Hitzarmenaren on- dorioz, Beasainen osasun-zentro berria eraikiko da.

Hitzarmen honen bitartez, Beasaingo Udalak, Bernedoko aparkalekuan aur- kitzen den, lurzorua emango dio, dohai- nik, Eusko Jaurlaritzari, baita proiektua idatzi, osasun-zentro berriaren eraikun- tza eta inguruaren urbanizatzea finan- tzatu eta eraikuntza-lanak esleitu ere. Lan hauetarako 320.000.000 pezeta daude izendatuta. Osakidetza horietatik 120.000.000 pezeta ordainduko ditu.

2.000 m²ko azalera izango duen osa- sun-zentru berria 2002 eta 2003 urtee- tan zehar eraikiko da. Espezialitate me- diko eta medikuntza orokorreko kon- sulta gehiagoren egokitzapena ahalbi- deratuko du. Hau guztia udalerriko biz-

tanleen onurarako izateaz gain, eskual- de osoaren mesederako ere izango da.

Eusko Jaurlaritzaren esanetan, "az- keneko urteetan ematen ari den eskae- raren eta asistentzi jardueraren igoerak instalakuntzen handitzea eta, Beasain- go Osasun-zentroak eskaintzen dituen osasun-baldintzen hobetzea eskatzen du".

Beraz, arazo honi erantzun egokia emateko hainbat hobekuntza ikusten di- ra: anbulatorioaren oinezkoen sarrera hobetu eta aparkamendu arazoak kon- pontzea. Honela, gaur egun anbulato- rioa dagoen bide-gurutzean, biribilgu edo errotonda berria eraikitzea aurrei- kusten da, zirkulazio zailtasunak gutxi- tuz. Udalerraren sarrera eta irteera erraztearekin, Beasaingo hiri-zirkula- zioa hobetuko da.

1984 urtean eraiki zen gaur egun Be- asainen dagoen anbulatorioa.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aimar Maiz, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Mari Flor Mendizabal, Iñaki Ugalde, Aitziber Murua, Alaitz Sarasola eta Zorion Intxausti.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9, Oñati)

Tirada: 8.300 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria

Legorretan bizi zen azkeneko 6 urteetan

Mikel Uribe ertzaina hil dute atentatuan

Uztailaren 14an, Leaburun, Mikel Uribe ertzaina hil zuen ETAk. Legorretan bizi zen azken urteetan Uribe, nahiz eta jaiotzez leaburuarra izan, 44 urte zituen eta seme baten aita zen.

Auto barruan zegoela tirokatu zuten Mikel Uribe, iluntzeko 8,15ak aldera. Oso larri anbulantzia Donostiara eramane zuten eta 21:50ean hil zen. Tiro ugari zituen lepoan eta bularaldean. Larunbatero egin ohi zuen afarira joan zen ertzaina.

Bigarren promozioko ertzaina zen Uribe eta Ertzaintzako Gipuzkoako Ikuskaritza Unitate burua zen. ELA sindikatuko afiliatua zen. 1996an Hernaniko kuarteraren buru izan zen.

Hilketa salatzeke bi bilkura isil egin ziren Legorre-



Legorretan bilkura isilak egin ziren igande eta astelehen eguerdian, hilketa salatzeke.

tan, Udalak deituta. Lehenengo, igandean eta bigarrena astelehenean. Asteleheneko kontzentrazioaren ondoren, ez ohiko Udalbatza egin zen udaletxean. Zazpi puntuko mozioa onartu zen, EAJ-EAko bost zinegotzien

botoekin. Batasunako 4 zinegotziak abstenitu egin ziren.

Hilketa salatzearekin batera, familiari elkartasuna eta samina erakutsi nahi izan zizkien. Hilketa, "zentsurik gabea eta antzua" dela zion

mozioak eta "gure herria gogor kolpatu du, Euskadiren zerbitzura dagoen ertzaina erailtzean". Mikel Uribe hil dutenei zera esan nahi izan zien: "ekintza hauekin ez dutela inongo helbururik lortuko eta erailketa guztiak beti alferrikakoak izango direla, orain eta beti". Hiru eguneko lutoa izendatu zuten Legorretan eta ikurrina mastta erdian jarri zuten.

Batasunako zinegotziek, Uriberen heriotza "gatazka politikoaren ondorio mingarria" dela esan zuten. Aldi berean, "herri honetako eta Euskal Herriko eragile guztiei berehala konponbidearen alde lan egiteko eta konpromiso argiak hartzeko" deia egin zien.

Nagusi
Optika
*Osakidetzarekin
hitzarmenari atxikiak*

☎ 943 161 999 Nagusia, 10 BEASAIN

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Marlarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI



HORTZ KLINIKA

Silvia Miras Casasayas
Odontologoa. 649 koleja.

Implantologia
Estetikazko odontologia
Haur odontologia
Helduen odontologia

San Ignazio, 8 B - 2. ezk.
☎ 943 88 92 87 **BEASAIN**



Mikel Zumarraga hirugarren aldiz kartzelara joateko arriskuan

Ormaiztegiko Mikel Zumarraga preso ohia, hirugarren aldiz kartzeleratzeko arriskuan dago. Izan ere, Donostiako Entzutegiak onartu egin baitu fiskalak preso ohiaren baldintzapeko askatasunaren aurka jarritako helegitea. Zumarraga, zigorraren hiru laurdenak beteta atera zen kalera; 1998an bete zituen. Hori dela eta, 1999ko ekainean irten zen kalera Iruñeko kartzelatik. Urtebetea kalean egon ondoren, Nafarroako Espetxe Zaintzako epaileak hartutako erabakia errekurritu eta berriz ere kartzelan sartu zuten. 8 hilabete egin zituen. Orduan Bilboko Espetxe Zaintzako epailearen aginduz kalera irten zen, baldintzapeko askatasunean egoteko baldintza guztiak betetzen zituelako. Orain, fiskalak aurkeztutako helegitearen aurrean, Donostiako Entzutegiak kartzeleratzeko agindu du.

21 urte kartzelan

Sei euskal presok 21 urte beteko dituzte kartzelan hilabete honetan. Tartean, bi goierritar ditugu: Patxi Eskitxabel legorretarra eta Eugenio Irastorza ordi-ziarra.

Oporrak

Irailaren 3an aterako da hurrengo GOIERRITARRA aldizkariaren alea, uztailaren 20tik abuztuaren 20ra oporrak hartuko baititugu. Beraz, ondo pasa oporrak eta guztiok ere indarrak berriturik etor gaitze-
la.

Egoitz Sukia Eibarrera

Ataungo futbolariak Eibar taldean jokatu du datorren denboraldian. Beasainen aritu da azken urteotan Sukia. Hala ere, denboraldi bat ere egin zuen Eibarren.



Esperientziaren Eskola antolatu du Goiekik

Matia Fundazioarekin elkarlanean, eta Gipuzkoako Foru Aldundi-ko Gizartekintza sailaren babesarekin, Esperientziaren Eskola sortu du Goiekik. Goierriko 55 urtetik gorakoentzako eskola da. Hiru helburu nagusi ditu: garapen pertsonalaren sustapena, fisikoki, psikoki eta sozialki egokia, osasuntsua eta arrakastatsua izango dena; formazioa errealitate soziala aztertze eta ulertze modaren ikuspegitik, pertsona hauek talde gisa paper bat izan dezaten, eta gainontzeko adinekin lotura eman dadin, belaunaldien trukaketa; eta talde honek gizartean eragiteko ahalmena izatea, paper aktiboa, baliagarria eta onuragarria betez.

2001eko urritik 2002ko ekainera iraungo du ikastaroak, asteartetik ostegunera. Uztailaren 27a baino lehen eman behar da izena, Goiekiko bulegoetan (943161537-943160970). Ikastaroaren prezioa 22.000 pezetakoa da. Matrikula egiteko, NANaren fotokopia eta 2 argazki beharko dira. Ikastaroa bukatzen duten guztiei parte hartzea egiaztatzen duen diploma emango zaie.



NACEX

Servicio Exprés

BEASAINgo AGENTZIA

San Inazio, 14, behea atzekaldea
BEASAIN

Eskatu gure zerbitzuak

Tel.: 943 16 40 26

Presazko pakete eta dokumentu
garraioa

Informazio orokorra

900 100 000 www.nacex.es

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lllantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57

ARRIETA

JATETXEA

943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

Sendaketa



Zorion Intxausti

Oreka
dietetika

Gure bizitzaren urteak pasatzen diren neurrian, edozein motatako arazoren bat gaindiezina bilakatzen bada. Horrek esan nahi du jarrera edo pentsamolde desegoki bat eduki dugula. Horren ondorioz, aukera handiak daude osasun arazoak agertzeko.

Gertakari hau bizitza normala egiteko oztopo oso handia denean, orduan hasten gara kezkatzen eta maiz eskatzen zaio osasunaren profesionalari emaitza ikusgarriak. "Dena azkar gertatu baita" delarik askok duten ideia.

Sendaketa, gure osasun arazoa identifikatu eta horren aurrean zerbait positi-

boa eginez, hasten da. Normalean sendaketak proportzio bat dauka arazoaren tamainarekin, hau da, tentsio altuarekin 5 urte eramanez gero, sendatzeko 8 hilabete edo urte bat inguru beharko da.

Azkenik azpimarratzekoa da, gaixo bat sendatuta kontsideratzen dela urte guztian ondo aurkitzen bada eta aste batzutan bakarrik agertzen zaionean gaixotasuna edo molestia. Esan daiteke, gaixotasuna "kontrolatuta" dagoela eta pertsona "sendatuta". Gainera, aste horietan agertzen denean molestia hori, ez da lehen bezain jasanezina izaten, normalean intentsitate baxuagokoa izaten da.

Esan ohi da, osasuntsu bizitzeko prebentzioa dela garrantzizkoena. Prebentzioa, pertsona ondo sentitzetik dator eta ondo sentitzeko jarrera "egokiak" eduki behar dira. Jarrera egokia zein den, pertsona batetik bestera asko aldatzen da, egoera ezberdin asko baitaude. Baina orokorrean, pazientzia eta pentsaera positiboak dira sendagarriak. Horien lagungarriak, teknika ugari dira: sendabelarrak, Bach-en lorak, psikoterapia, homeopatia, eta abar luze bat. Munduan ehunka eta agian, milaka teknika daude. Bakoitzak esperientzia onuragarria duenean, hori delarik berarentzat teknika egokia.

Prebentzioa, pertsona ondo sentitzetik dator eta ondo sentitzeko jarrera "egokiak" eduki behar dira.

Euskara txukunean

Betiko/betirako

Atzorako, etzirako, betirako... edo atzoko, etziko, betiko... erabili beharko genituzke? Bada, aurrerantzean, bigarren multzoko forma hauek erabiltzea gomendatuko genizuke.

Adibideak:

● Atzoko (eta ez "atzorako") agindu nizun lantxoak ez dut egiterik izan, Manuel! Gainera, oso lanpetuta nabilenez, ez dakit etziko (eta ez "etzirako") ere egin ahal izango dudan!

● Betiko (eta ez "betirako") ez gara mundu hone-tan, Xilberio!

Gogoratu, bestalde, beste balio bat ere izan dezaketela aipaturiko hitzek (aurrekoek aditz bati laguntzen bazioten, hauek izen bati lagunduko diote):

● Albiste hori atzoko egunkarian ez bazetorren, etzikoan etorriko da ziur asko.

● Betiko kontuak, Joxe!

Maizpide Euskaltegia

HERBALIFE

Pisuaren kontrolean eta larru azalaren zainketan berriena

Kontsulta dohainik eta etxean entrega

Deitu zure banatzaile independenteari

☎ 943 884 560 ☎ 943 881 260 ☎

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

Ipurdia galdu beharrik

Tenporek agindu ziguten eguraldi nahasiak bedeinkatu du aurtengo uda hasiera, eta tankera horretan heldu diogu urteroko martxari. Igerilekuak ere bete dira zipiztita eta garrasiz, eta mendian ugaltu dira bi hankakoen arnas hotsak. Festa usainera ohitu gara dagoeneko, eta Ordiziakoak ere ez dira urruti. Frantzia aldean, berriz, katxiaren ordeztu botellina hartuta dabilta; Tourrak harrotu ditu hautsak.

Aldapan gora ausart, eta ordekan ipurdia galdu beharrik joaten dira txirrindulariak. Goierri ere badakigu bizikletan ipurdia galdu beharrik ibiltzen, baina ez espresuki abiadura arrazoiengatik. Batxe, partxe eta letxeengatik baizik. Afizioa duenak jakingo du honetaz zerbait. Izan ere, hamaika errepide badago txukundu premian. Eta erdiko edo ertzetako arrasto txuria margotzeak ez du aurrerapen handirik ekartzen. Ez behintzat pedalei eraginez doanarentzat.

Bide gorrien faltan, gorriak ikusten ditugu bidean. Egia da, bai, kaminoen mantentzea garestia da. Baina askotan, brea edo galipota parrastadak botatzen dituzte bidean dauden "postreak"

disimulatzeko, eta zuloa zegoen tokian koskorra jartzen bada, esan diezadatela niri zer irabazi den azkenean.

Akaso norbaiti txistea irudituko zaio, baina makina bat txirrindularik bedeinkatuko zituzten honezkero Goierriko bideak. Kasurik onenean ipurdiko mina jartzen da. Baina amorrazio handiagoa ematen du gorpila zulatzen denean. Eta zer esanik ez, bizikleta dardarizo batean dioalako, izkinatik pixka bat urrutiratu zarela-eta, txofer erretxinen batek bozina jotzen dizunean. Eskerrak sasoi honetan moztu izan dituzten bide bazterreko sasi eta osinak. Horien ukituak ere soberan baititu bizikletazaleak.

Tourrik ez da hona iritsiko, baina nahiago luke batek baino gehiagok datorren Euskal Herriko Itzuliko etapak bailara honetako bide miserable horietatik pasatuko balira. Aitzakia horretan berdintzen dituztelako berdindu beharrekoak. Segur aski betiko legean jarraitu beharko dugu, ordea, datorren urtean ere: ipurdia galdu beharrik. Eta Tourrerako baino hobeak egongo gara "Paris-Rouveaux" koei elkartasuna adierazteko.



Alaitz Sarasola

Goierri Bus

Segurtasun eta kalitatezko zerbitzua

Tel.: 943 72 52 50
Faxar: 943 72 58 70

Mota guztietako autobusak
19, 29, 55, 60 eta 82 plazatakoak
Literadunak komunarekin

KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

MUJKA

BEASAIN ☎ 943 88 74 00

Barandiaran ZERAMIKAK

- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

Kate motzean

Musikari batek nola bizi ditu herriko jaiak?
Ilusioz, betez ere danborradetan jotzeko.

Eta argazkilaria batek?

Kezkatsu, batez ere lanaren gehiagotzea izaten delako.

Bandarekin jo ala koruarekin abestu. Zer duzu nahiago?

Bietan asko disfrutatzen dut.

Argazkiak, txuri beltzean ala koloretan?

Orokorrean koloretan. Txuri beltzak irudien dramatismoa gehitzen du eta egokia da kontraste gutxiko paisaiantzat edo erretratueta pertsonaiaren pertsonalitatea gehitzeko.

Argazkiak ateratzeko zein da jaietako ekitaldirik egokiena?

Uztailaren 24an, plaza nagusian danborradaren bukaera.

Zer falta zaie Ordiziako jaiiei?

Egunez ekitaldi gehiago.

Ordiziako jaietarako plan bat:

Afaltzera atera eta ondoren lagunekin poteatzea.



Edari bat:

Erreserbako ardo beltz on bat.

Musika talde edo abeslari bat:

Presuntos Implicados.

Oporretarako leku bat:

Kanariar uharteak.

Bizitzeko herri bat:

Ordizia.

Desio bat:

Ordiziako jaiak bake eta harmonian joan daitezela.

Javi Carrizo

*argazkilaria,
Oroith abesbatza eta
Ordiziako bandako
partaidea*


borja de la  *Jai zoriontsuak denoi!*
de la Cuesta
Kortinak, alfonbrak,
etxeko arropak
Oihalak
Plaza Nagusia, 4 ORDIZIA

 **GUK-LAN**
Berogintza - Iturgintza - Gasa
Tel.: 943 16 12 77 Faxa: 943 16 09 33
Okorro 6 - behe **ORDIZIA**


Umeen arropa denda
**FESTETAN ONDO IBILI
ETA OPORRAK ONDO PASA!**
☎ 943 16 12 39
Santa Maria, 13
ORDIZIA

MUGA
Argiztapenak

Jai zoriontsuak igaro ditzaue!
Euskal Pilota, 4 eta 5
☎ eta faxa: 943 88 86 88
☎ mugikorrak: 619 46 22 65
eta 619 46 22 68
ORDIZIA


MUJKA
LIBURUDENDA
Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Sara Cozar ordiziarra, Goenkaleko Miriam

Otsailean hasi zen Sara Cozar ordiziarra ETB-1ko Goenkale telesailen lanean. Miriamen papera egiten du. Oporraldiaren ondoren, irailean berriz itzuliko da pantailara.

Ordiziako Urrup antzerki taldean egin zituen lehen urratsak antzerki munduan. "Beti gustatu izan zait baina lotsa ematen zidan. Nire lagun bat hasi zen eta oso giro ona zegoela eta, animatu egin nintzen. Eta oso gustura nago. Orain, Bernarda Albarren Etxea antzezlanaz aurkeztuko dugu Barrenan, Ordiziako jaietan", esan digu Sarak.

Duela bi urte hasi zen. Urtearen hasieran, berriz, ETBk egin zuen casting erraldoian parte hartu zuten bertako hainbat kidek, eta tartean Sarak. Hasiberriak telesailerako aktoreak bilatzeko castinga zen. Lehenengo hiru probak gainditu zituen. "Hirugarrena oso gaizki egin nuen. Lehenengo esal-



dia esan eta gainerakoa ahaztu egin zitzaidan. Kantatzeko eta dantza egiteko ere esan zidaten, baina oso gaizki". Ez zuen zortetik izan, dio Sarak.

Handik bi astera, Goenkale, Miriamen pertsonaiarentzako beste casting bat zegoela eta deitu egin zioten. Bost neska aurkeztu ziren. Orduan oso lasai joan zen. Ostiralean castinga egin eta astelehen eguerdian baiezkua eman zuten deitu zioten.

16 urteko Miriamen pape-

ra egiten du Sarak. Berak, ordea, 21 urte ditu. Irailean itzuliko da, istorio berriekin. Sarak Miriamekin ez omen dauka zerikusirik. "Hasteko, adinean ez dauka zerikusirik Miriam oso ikasle saiatua da Sarari asko kostatzen zaio ikasten hastea. Ezkorra ere bada Miriam".

Hasieran nahiko gaizki pasatzen zuen grabaketan. "Testua kamaren aurrean esatea da zailena. Testuak ez dira luzeak izaten eta erraz ikasten dira baina grabaketan hainbeste jenderen aurrean esatean oso urduri jartzen nintzen hasieran. Gainera lehenbailehen bukatu nahi izaten da, errepikaketetan ibili gabe. Bukararako lasaiago egoten nintzen. Grabatu eta lasai gelditzen nintzen eta ez nintzen konturatzen gero milaka eta milaka lagunek ikusi behar nindutela".

Antzerkia hala ere, zailagoa egiten zaio Sarari. "Antzerkian ezin da errepikatu eta aurkezpenean oso urduri egoten zara. Ikusleak hori

bai, gertuago daude".

Zer ikasi asko duela aitortzen ordiziarrek eta datorren ikasturtean Donostiako Tae antzerki eskolan hasiko da, "gauza guztiak bezala, lan hau ere ikasi beharra dago eta". Publizitateko ikasketetako azkeneko urtearekin batera uztartuko du Goenkale.

Pantailan oso gaizki ikusten omen zuen bere burua hasieran. "Denei berdina gertatzen omen zaie eta azkeneko ohitu egiten da". Harrituta gelditu da Sara, Goenkalean aurkitu duen giro onarekin. "Giro ona espero nuen baina ez hainbeste".

Hasiberriak telesailera salto egingo ote duen galdetu diogu: "ideiarik ere ez. Guk Goenkale jarraitzen dugun edo eta Hasiberriak jarraitzen duen ikusi beharko da lehenengo".

Euskal aktoreak Madril aldean modan daude. Aukera edukiko balu joango litzateke. "Baina hasi berria naiz eta oso zaila ikusten dut. Pixka bat formatzen naizenan, agian errazagoa izango da".

Jai zoriontsuak denoi!

ESKAILU TABERNA

Arteaga, 1
ORDIZIA

INPRIMATEGIA

URDANETA

KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ

Urdaneta, 26 ☎ 943 88 04 46 Faxa: 943 16 14 07 ORDIZIA

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK

LEKIM HAROZTEGIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
ALTZARIAK NEURRIRA

Ibabe Industrialdea, 11 pab. ☎ 943 16 12 83
LAZKAO ☎(mugik.) 608 - 61 95 01

Santa Ana jaiak Ordizian

Uztailak 20, ostirala:

22:15ean: Barrena Kultur Etxean antzerkia, Ordiziako "Urrup" Taldeak Garcia Lorcaren "Bernarda Albaren Etxea" lana antzeztuko du.

Uztailak 21, larunbata: Txikien Koadrila eguna:

10:00etan: Gudarien Etorbidetan, XXVIII. Chapel Gorri Txirrindulari Proba, 2.urteko kadeteen mailan. **11:30ean:** Amaiera.

12:00etan: Haurren egunaren hasiera adieraziz suziri eta bonben jaurtiketa. Plaza Nagusian Txikien Koadrila bil-tzea.

Ondoren: Buruhandi eta Erraldioen alardea.

16:15ean: Joxe Migel Barandiaran Plazan, haur jolasak.

16:15ean: Majori Kiroldegian, "II. Aerobiton Ordizia", Mariaje Zabalarri omenaldia.

17:00etan: Beti-Alai Pilotalekuan, gomazko pilotaz pala-partidak finalak.

18:00etan: Buruhandi eta Erraldoiak, Ordiziako Txistulariekin batera.

19:00etan: Plaza nagusian, haur animazioa.



20:00etan: Beti Argi Banda-rekin kalejira.

22:30ean: Arboledan Zezen-Suzkoa, Beti Argi Bandak alaitua.

23:00etan: Beti Alai Pilotalekuan Haurren mozorro dantzaldia, Beti Argi Bandarekin.

24:00etan: Plaza nagusian, Danborradako kantineren aurkezpena, eta Alai taldearekin dantzaldia.

Uztailak 22, igandea:

9:00etan: Goiz eresia Ordiziako Txistulariekin.

11:00etan: Meza Santua. Meza bukatzean Danborrero eta Upeltxo taldeak, Beti Argi Bandaren laguntzaz, Ordiziako Martxa joko dute.

ziako Martxa joko dute.

12:00etan: Plaza nagusian, haurren ohiko aureskua.

16:30ean: Beti Alai Pilotalekuan Ordizia V Torneoaren pilota finalak alebin eta infantil mailan.

20:00etan: Haurren danborrada.

Uztailak 23, astelehena:

22:15ean: Barrena Kultur Etxean, kafe-antzerkia, "3 para no y cos" taldeak "Momentos para recordar" lana antzeztuko du.

Uztailak 24, asteartea:

12:00etan: Txupinazioa.

12:15ean: Buruhandi eta Erraldioen Alardea, txistuz,

eta trikitixaz lagundurik.

18:00etan: Buruhandi eta Erraldioen irteera Ordiziako Txistulariekin batera.

19:15ean: Alde zaharrea, Mexikoko Netzahualcoyalt-eko "Mariachi Real Santa Cecilia" eskutik kalejira.

21:30ean: Ohiko Danborradaren irteera.

Ondoren, "Koxkola" txaranga.

23:30ean: Boxeo Jaialdia.

24:00etan: Plaza Nagusian, Mexikoko Netzahualcoyalt-eko "Mariachi Real Santa Cecilia" taldearen ekitaldia.

Uztailak 25, asteazkena:


7:30ean: Laguntasuna Rondailaren goiz eresia.

9:30ean: Profesionalentzako Nazioarteko LXXVIII. Villafranca Txirrindulari-Proba hasiko da.

13:30ean: Plaza nagusian, Laguntasuna Errondailaren kontzertua.

13:30ean: LXXVIII. Villafranca Txirrindu Probaren amaiera.

18:00etan: Altamirako kirol "anexoan", Pikadorerik gabeko nobillada, "El Albero" zezen peñak antolatuta, "Urrez-



**FESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**

**Etxezarreta Kalea
ORDIZIA**

Arantxa
Lentzeria
Jai Zoriontsuak!
J. M. Barandiaran, 3
943 88 76 15 **ORDIZIA**

ORLEGI **JAIK ONDO PASA**

TABERNA **ETXEZARRETA, 3
ORDIZIA**

Jai zoriontsuak pasa ditzazuela! **Diseinua**
HIDALGO **Berrikuntzak**
Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak **Kalitatea**
Garantia
Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 **ORDIZIA**

ko gazta" I. Saria. Nobilleroak: Francisco Javier (Salamanca), Morenito de Aranda (Burgos) eta Daniel Ollora "El Dani" (Gasteiz). Ganadutegia: Villafrancako "Santafe Marton" (Nafarroa).

18:30etan: Larruzko pilotaz pala-partidak, Beti Alai pilotalekuan.

18:30etan: Alde zaharrear eta Urdaneta kalean Erraldoien kontzentrazioa, honako konpartekin: Beasain, Tolosa, Legazpi, Urretxu, Zegama, Pasaia eta Ordizia.

19:00etan: Koxkola txaranga ibiliko da kalez kale.

19:30etan: Alde zaharrear, musika-animazioa "Mac Jeara's Band" taldearen eskutik.

20:00etan: Ukraniako Gorlitz talde folklorikoa.

21:00etan: Beti Argi banda-ekin Kalejira aparta.

22:30etan: Domingo Unanue Plazan, Dantza Folklorikoaren Jaialdia: Kieveko (Ukrania) 'Gorlitz' taldea.

23:30etan: Plaza Nagusian, "Rhodas" orkestra eta Koxkola txaranga.

24:00etan: Beti Alai pilotalekuan mozorro-dantzaldia "Sakatrik" taldearekin.



Uztailak 26, osteguna: Santa Ana eguna:

6:00etan: Ohiko goizaldeko danborrada.

Ondoren: Arboledan, txokolate jana.

8:30etan: Ordiziako Txistulariek eta Trikitixak alaituriko goiz eresia.

9:00etan: Irungo Udal Musika Bandaren kalejira.

11:00etan: Parrokian Meza Nagusia Udalbatzarra bertan dela Santa Ana abesbatzarekin.

12:15etan: Plaza Nagusian, agintarien soka-dantza.

13:00etan: Plaza Nagusian, Irungo Udal Musika-Bandaren kontzertua.

18:00etan: Beti Alai pilotalekuan Jai Alai Elkarteak antolatutako profesionalen arteko pilota partidak eskuz :1. par-

tida: Beloki II-Galarza VI/Saralegi-Medina aurka; 2. partidua: Esain Beloki / Olaiola-Zearra aurka.

18:00etan: Barandiaran Plazan, Moskuko Zirku Txiki paregabearen saioa. (Magia, orekaria, bihurrikaria, gimnasia artistikoa....)

19:00etan: Lagunak txaranga ibiliko da kalez kale.

19:30etan: Alde zaharrear, kale-antzerkia, "Pikor" Taldeak "K.O." ikuskizuna antzetzuko du.

21:00etan: Kalejira Beti Argi Bandarekin.

22:30etan: Domingo Unanue Plazan Dantza Folklorikoaren Jaialdia, Poloniako Ostrolekako "Zespol Dantza Ludowego" taldearen eskutik.

23:30etan: Plaza Nagusian, "Iruña Band" Orkestra eta "Lagunak" txaranga.

23:30etan: Dantzaldia "Tximeleta" taldearekin Beti Alai pilotalekuan.

Uztailak 27, ostirala: Santanazale eta koadrilen eguna:

9:00etan: Ordiziako Txistularien eta trikitixen goiz eresia.

11:00etan: Parrokian Santanazaleen meza.

12:00etan: Santanazaleen ohiko Esku-Dantza Plaza Nagusian.

13:00etan: Koadrilen irteera.

21:00etan: Kalejira Beti Argi Bandarekin.

23:30etan: Plaza Nagusian, "Indiana" Orkestra eta Kalejira txaranga.

23:30etan: Drindots Beti Alai pilotalekuan.

Uztailak 28, larunbata:

16:00etan: Plaza Nagusian, Haur jolasak, puzgarriak eta tailerrak

20:00etan: "Dixikleta Jazz Band"-aren musika.

22:30etan: Plaza Nagusian, Pasaiko Tirri-Tarra Fanfareak eskainitako "Re + Fa zuzenean" ikuskizun-kontzertua

Ondoren: "Dixikleta Jazz Band"-aren musika animazioa.

Jai zoriontsuak denoi!



**GOITAGI
OBINDEGI**
Ogigintzan onenak!

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 943 160501

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 943 880737

KISKÁ
PUB

Santa Maria

ORDIZIA


HERRIKOA TABERNA
Pintxo mundialak



Elkano Kalea

Giro abertzalea

ORDIZIA



**OINETAKOAK
OSAGARRIAK**

J. M. Barandiaran Pl., 3

☎ 943 88 61 77

ORDIZIA

Xabier Insausti Ordiziako apaiz gaztea:

"Kristau izatea bizitzari zentzua emateko modu bat da, eta nire ustez, onena"

Xabier Insausti apaiz ordenatu berria da. Eibarko San Andres parroikiko apaiza da. Seminariora joateko erabakiak ingurukoak harritu bazituen ere, kristautasunarekin bat egin eta apaiz egin da. Eliztarrek ondo hartu dute ordiziarra.

- Arraroa egiten zaigu 27 urteko gazte bat apaiz egitea.

- Arraroa ez dakit, baina normalena ez da eta gainera ondo dago normalena izatea. Nire bizitzan atzera eginda, sekula ez nuen pentsatu apaiz izatea. Besteak beste, Eliza eta kristau izatea bera ere distantzia batekin ikusi ditudalako. Kristau izatea ere pauso bat izan da niretzat. Ez da gauek goizera hartzen den erabaki bat, prozesu bat da, lehenengo kristau izatea zentzuz hartzea eta gero kristau izate hori nola gauzatzen den.

- Kristautasunarekin noiz egin zenuen topo?

- Data zehatz bat esatea ez da erraza, prozesu bat delako. 17 urte inguru horretan, Sendotzako taldeetan eta aurretik ere, nahikoa kritikoa nintzen. Iskanbila handiak sorten genituen. Lehenengo gertura-



"Sekula ez nuen pentsatu apaiz izatea. Besteak beste, Eliza eta kristau izatea bera ere distantzia batekin ikusi ditudalako".

tzea izan zen hura. Konfirmatu ginenoi dei bat egin ziguten parrokitik talderen batean parte hartu nahi ote genuen galdetuz. Balatakaklin aisi taldean sartu nintzen. Pertsonak ezagutzen, kristau izaten sakontzen, kurtsoak eginez... Nire burua kristau bezala nahiko sendo eta ondo ikusten nuen. Nutrizio karrera bukatzen ere ari nintzen eta nire buruari kristau izan nola ikusten nuen galdetzen hasi nintzen. Ordura arte apaiz izatea ez zitzaidan sekula burutik pasa eta orduan sakontzen hasi nintzen. Seminariora joateko erabakia hartu nuen, apaiz izatea nirekin bat zetorren kontrastatzeko. 6 urte egin ditut Seminarioan. Askok balio izan didaten urteak izan dira.

Eta noski, bat dator nirekin. Kristau izatea bizitzari zentzua emateko modu bat da. Eta nire ustez, modurik onena. Aurretik nituen aurreiritziak beste era batera ikusten ditut orain.

- Zure ingurukoek nola hartu dute zu apaiz izateko erabakia?

- Koadrilakoek hasieran ez zuten sinisten. Nire koadrilan gehienak ez dira kristauak eta hasieran asko txokatu ziren. Diakono egin nindutenean, batek esan zidan orduan sinistu zuela apaiz egingo nintzela. Baina badakite benetan hartutako erabakia dela eta ondo ikusten naute eta ondo onartu dute. Etxean hasieran ere txokantea izan.

- Kristautasunak zer eskaintzen dizu zuri eta zuk kristautasunari?

- Kristautasunak, niri baino gehiago, kristau den edozein pertsonari, oinarri-oinarrian, bizitzari zentzu bat ematen dio. Eta zentzua, kristau jainkoaren esperientziatik. Azken finean pertsona guztiak bizi gara eta galderak sortzen zaizkigu. Erantzun asko daude. Batzuk esango dute bizitzak ez duela zentzurik, beste batzuek bizitzaren zentzua bizitzako urte hauetan ahalik eta diru gehien lortuz izango litzateke, beste batzuentzat ezkondata... Kristautasuna da bizitzari zentzua aspektu guztietan eta besteei ematea ere bai.

- Euskal Herrian gero eta apaiz gutxiago dago. Kanpotik etorri beharko al dira?

- Nahiko problematiko ikusten dut hori. Aldaketa kultural bat bizitzen ari gara Europan. Aldaketa kulturala oso garrantzitsua da. Orain arte, nolabait, kristautasuna izan da gizarte osoa 'kutsatu' duena. Gizarte osoa izan da kristau. Sekularizazio prozesua gertatzen ari da, bizitzaren martxan kristautasunak ez du hainbesteko garrantzirik. Horrekin batera, krisi kulturala, modernidadeak suposatu

OIANGU

T A B E R N A



☎ 943 88 30 03

Euskalerrria z/g ORDIZIA

Zai
zoriontsuak!

X kel

ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA

Urdaneta, 41

☎ 943 16 16 06 - 619 770 600

ORDIZIA

duenarekin. Mugimendu ekologistak, feministak, giza eskubideen arlokoak... esan nahi digute orain arte egindako planteamendu asko ez direla izan egokienak eta horrek ez garamatzala oreka batera, gizon-emakumeen artean. Aldaketa kultural oso horren barruan sartzen da Elizan sortzen ari den aldaketa. Aldaketa positibo batzuk. Nik uste dut garrantzitsua dela gizarte bezala, indar bat edukitzea, Elizaren influentziatik kanpora eta Elizaren barruan ere oso garrantzitsua da, Kristau elkarteak bere baitan ere bere autonomia izatea. Elizak munduan eta bera antolatzeke eran aldaketa izan behar du. Kanpotik etortzen diren apaizak gaur egun daukagun egitura mantentzeko baldin bada, ez zait positibo iruditzen. Ematen ari diren aldaketa hauek bultzatu egin behar dira. Donostiako Seminarioa 500 lagunentzako pentsatuta zegoen eta momentu honetan 12 pertsona egon gara. Jende gutxi dela esaten da baina aurreko 500 hura al zen kopuru ideala? Ez dut uste Elizak hobeto funtzionatuko zukeenik Seminarioan 500 lagun egonda. Agian, momentu honetan ondo funtzionatzeko aukera daukagu eta Eliza bezala zentratzeko gi-



zarteko arazoetan. Gure inguruneke eta munduko arazoak Elizarenak bihurtuz. Gizartera gerturatzeko aukera handia dago. Eliza elkarteke kristauetarako protagonismo gehiago hartzeko aukera dago, apaizetarako protagonismo guztia hartu beharrean. Hori positibo ikusten dut eta hori gertatzen da apaiz gutxiago dagoelako. Berezko izan behar lukeen zerbait, Eliza elkarte denok osatzen dugulako, krisi honetatik gertatzen ari da. Ongi-etorria beraz krisi honi.

- Zer berrituko zenuke Elizan?

- Garrantzitsuena da niretzat, nola egituratu Eliza aldatzen ari den egoera honen aurrean. Haur txikiei oso lotuta dagoen Eliza daukagu. Bataioa, jaunartzea, sendotza... Eliza eta kristau izatea helduen

gauza da, pertsona helduek egin duten deskubrimendua edo esperientzia da. Niri gehiena gustatuko litzaidake Eliza bezala eskaintzea, norberarentzat onena dena. Zure bizitza zoriotsu izateko aukerarik onena eskaini nahi dizut, kristau esperientzia eskainiz. Hori nola egituratu eta eskaini? Hori gustatuko litzaidake berritzea. Gaur egun daukagun Eliza honetan oso zaila da gauzatzea, gehienbat umeengan zentratuta daukagulako. Ez dakit somatzen den helduei mezu garrantzitsua dagoela eskaintzeko.

- Elizak zein paper joka dezake euskal gatazkan?

- Orain arte saiatu da leku bat ematen, aukera bat ematen bizi dugun egoera honi irtenbide bat emateko. Saiatuz adostasun batera irits daitezela, saiatur bizi dugun gatazka ahalik eta gizakoien tratatzen eta nik uste dut bide horretatik jarraitu behar duela Elizak. Beharrezkoa bada bitartekari bezala, ba, bitartekari bezala; beharrezkoa bada distantzia bat hartzea, ba, distantzia bat hartuz... beti gatazka hau sufritzen ari diren pertsonetatik eta egoeratik gertu egonez. Proposamenak luzatuz ere bai. Kristauak bere eguneroko bizitzan ere bake

bide horietatik joan daitezen bultzatuz.

- Gizartea Elizatik urrun al dago eta Eliza gizartetik?

- Nola ulertzen den arabera, bi gauzak egiak izan daitezke. Kristau izatea edo kristau elkarte beti egon da bizitzatik gertu eta alderantziz. Zeren, kristau izatea bizitzaren esperientzia baita. Eta ezin da kristau izan norberak bizi duen denbora eta leku horretan ez bada kristau sentitzen. Gaur egun nola sentitu bat kristau Euskal Herrian? Lotura behar-beharrezkoa da.

- Ezkondutako apaizak noiz?

- Hori historikoki hartutako erabaki bat da. Elizak momentu batean erabaki zuen zelibatoa eskatzea Elizaren arduradun izango zirenei. Erabaki historikoa denez, gertatu daiteke, momentu batean, zelibatoa beharrezko ez izatea kristau elkartearen arduradun izateko. Ezagutuko dugun ala ez, ez dakit. Beste erabaki historiko bat beharko da. Berez ez dago arazorik hori horrela gertatzeko. Horrek ez du esan nahi ez daukanik zentzurik zelibatoa apaiza izateak. Lotura eta zentzua badauka, baina ez dauka zertan horrela izan beharrik.

ORDIZIAN eta BEASAINEN



- Etxebizitzak
- Apartamentuak
- Lokal komertzialak
- Garajeak
- Kalitaterik oneneko eraikuntzak

S.A.

Filipineta, 13 - behea

☎ 943 88 49 50

ORDIZIA

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35	Elosegi, 14	Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58	☎ 943 88 72 79	☎ 943 16 00 44
BEASAIN	LAZKAO	ORDIZIA

Pamir mendikatean, Tadjikistan eta Kirgizistan artean, dago 7.134 metroko tontorra

Lau goierritar Lenin mendira

Uda honetan Lenin mendira doan espedizioa 7 lagunek osatuko dute, tartean 4 goierritar: Pedro Garcia eta Jose Manuel eta Juan Mari Sarasola ordiziarrek, eta Jokin Aizpuru lazkaotarra. Uztailaren 24an, Ordiziako jaiak bete-betean daudela, abiatuko dira Pamir mendikatera 7.134 metroko mendia igotzeko asmoz. Pedro Garciarekin izan gara bere asmoen berri jakiteko.

Hasieran Nepalgo beste mendi bat egiteko asmoa zeukan Pedro Garcia. Azkenean, ordea, aukerarik ez eta Mendiak eta Herriak enpresak antolatutako espedizioarekin joatea erabaki zuten Pedrok eta Jokin Aizpuruk. Gero jakin zuten Ordiziako Sarasola anaiak ere espedizio honekin zihoazela. Goierritarrekin batera, zarauztar bat eta bi nafar joango dira.

Sarasola anaientzat eta Aizpurementzat lehenengo zazpi milakoa izango bada ere, Pedro Garcia veteranoa dugu, hau ez du lehenengo zazpi milakoa, lehen beste 4 igoak baititu. Zortzi milako Cho Oyu ere igotzen saiatu zen baina alde handia omen dago. "Cho Oyu 8.000 metrotara iritsi nintzen eta han

oxigeno falta nabarmena da, altueran izugarri nabaritzen da". Lenin, Pamirreko bigarren mendirik altuena da, Komunismoren ondoren. Komunismo igotzen ere saiatu zen Pedro baina ez zuen igo. Besteak Andeetan ibiliak dira baina ez dute zazpi milakorik egin.

Gerturatzea

Bilbotik Frankfurtera, handik Moskura eta Moskutik Pamirra hegazkinez inguratuko dira. Jeepetan igoko dira oinarritzko kanpamentura. 4.800 metrora dago. Bi egun beharko dituzte bertara igotzeko.

5.100 metrora jarriko dute lehenengo kanpamendua. Bigarrena 5.800era eta hiruga-

7.000 metrotik gorako 4 mendi igota, Pedro Garcia ordiziarra da altuera horietan esperientziarik gehien duena.



arren 6.800 metrora. Handik egingo dute gailurreko saia-kera. Hasierako egunetan lan handia izango dute, kanpamenduak jarritz eta hornituz, igo eta jaitsi ibili beharko baitira.

Aklimatazioa bertan egingo dute, alturako kanpamenduak jarritz. "Inguruan ez dago beste mendi garairik. Lenin bakarrik dago. Hori dela eta mendi berean dago aklimatatu beharra. Lehenengo egunak lasai hartuko ditugu. Oinarritzko kanpamendua 4.800 metrotan dago eta altura handia da autoz hain az-

kar igotzeko. Oinez igoz gero, pixkanaka joaten da aklimatatzen baina autoz igota, batean, altura handira igo-tzen da".

Denbora gutxi

Gailurrera igotzeko 12 egun izango dituzte, baimen luzeagorik ez baitute ematen. "Mendia igotzea zorte kontua izaten da askotan. Eguraldi txarra egiten badu, etxera, ez daukagu han eguraldia aldatuko den zain egoteko denborarik", dio Pedrok. Itzulera abuztuaren 17rako dute aurrikusia.

TXALAPARTA
taberna

Festa onak pasa!

Goierrri Kalea, 12 943 88 67 65
ORDIZIA

Fandango

- ✕ Musika tresnak
- ✕ Megafoni alkilerra
- ✕ Baxu eta gitarra klaseak

943 16 10 73

Domingo Unanue, 2 **ORDIZIA**



ORDIZIA
BIDEO
KLUBA

© 943 88 79 19

Domingo Unanue, 1 **ORDIZIA**

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 1975 pta.

Aita Urdaneta **ORDIZIA**
943 88 72 76



- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altxarigintza industrialia
- Bulego altzariak

943 88 77 90 Zumarralde z/g
Faxa: 943 88 82 67 **ORMAIZTEGI**

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 943 889 390 **BEASAIN**
Garagartza pl., 1 943 805 327 **ORDIZIA**

Lenin mendiko Oinarritzko kanpamenduan zerbitzu asko daude. "Sauna ere ba omen dago eta gainera belarretan dago oinarritzko kanpamendua, hori ondo dago atseden hartzeko ordurako".


Teknikoki ez da mendi zaila. Eskaladarik ia ez dauka. Hori bai, hotza eta haizea dira Lenin mendiaren ezaugarriak. "Inguruan beste mendiaren babesik ez duenez haizeak oso gogor jotzen du".

Prestakuntza bakoitzak bere erara

Prestakuntza: bakoitza bere aldetik ari da eta bakoitzak bere filosofia dauka. "Nik korrika egiten dut, txirrinduz ibili eta mendira joaten naiz".

Pedrok Ordiziako jaiak galduko baditu ere itzuleran ospatuko ditu. "Igoz gero gainera, askoz ere hobeto".

Lenin mendia argazkitan



1.- Lenin mendia bera bakarrik ageri da zelai zabalez inguratua.


2.- Oinarritzko kanpamendua uztailearen Setik abuztuaren 20ra dago zabalik.

3.- Oinarritzko kanpamenduan hainbat zerbitzu eskaintzen dira, sauna barne.

4.- Zailtasun tekniko handirik ez duen mendiaren igoerako une bat.

5.- 3. kanpamendua 6.800 metrotan jarriko dute goierritarrek.

6.- Gailurrean Leninen irudia dago.



FERNANDO ARANA LEKUONA

Jai zoriontsuak guztioi!

Amerika, 2 © 943 88 89 80
ORDIZIA



LEIZEA



TABERNA



- Aurpegiko tratamendu espezifikokoak
- Gorputzeko tratamendu pertsonalizatuak
- Zutikako solariuma
- Mikropigmentazioa (perfilatuak, bekainak, begiak, ezpainak)

J. M. Barandiaran pl., 3
© 943 88 28 88
ORDIZIA

Lirain



JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 © 943 16 22 56 ORDIZIA



AZURMENDI
Harategi - Urdaitegia

Victor Mendizabal, 2 © 943 88 47 65 ORDIZIA
San Inazio, 6 © 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN



JOS-BEL

ILEA PAINDEGIA

ZUTIKAKO SOLARIUMA

KOSMETIKA OSAGAIAK

☎ 943 88 82 52

Urdaneta, 15

ORDIZIA

Abuztuan irekita

15etik 19ra izan ezik



SUKALDEKO
ALTZARIAK

ELEKTRAGAILUAK

ILUMINAZIOA

INSTALAKUNTZA
ELEKTRIKOAK

 xkey

 Vegasa

Suquia

☎ 943 88 23 00 ☎

ERAKUSKETA:

K. Nagusia, 10 ORDIZIA

Mikel Martikorena: 100 kilometroko lasterketan 5.

Katalunian, Calellatik Tossa de Mar bitartean, ekainaren 2an, 100 kilometroko lasterketa jokatu zen eta hantxe izan zen Mikel Martikorena Ordiziako korrikalaria. Bosgarren egin zuen; 10 ordu eta 14 minutu behar izan zituen 100 kilometro egiteko.

Ekainaren 2an, arratsaldeko 6etan hasi eta gauean amaitu zen lasterketa. Goizeko 4etan amaitu zuen Mikel Martikorenak. Arratsaldeko 6etan oraindik ere bero itzela egiten omen zuen. Gauean, behintzat, freskoago. 11 itzuli egin behar izan zituzten, itsaso kontrari, Calellatik Tossa de Mar bitartean.

70 korrikalari inguru atera ziren. Bukatu? "Nik ez dakit, bukatu eta berehala alde egin nuen, oso nekatuta bainengoan. Jende askok oinez bukatu zuen", esan digu Martikorenak. Irabazleak 8 ordu baino gutxiago behar izan zituen. "Lehenengo hiruak makina batzuk ziren.

Aurrean jarri ziren hasieratik eta bukaeraraino". Jendea nahiko erritmo gogorrean hasi omen zen

Momentu gogorrena, 70. kilometroan, pasatu zuen Mikelek: "utzi edo jarraitu zalantzan egon nintzen. Baina beste 30 kilometro bakarrik gelditzen zitzaizkidan. Donostiatik etxera kilometro gehiago egin nituela eta animatu egin nintzen".

Izan ere, entrenamendu bereziak egin behar izaten dira hainbeste kilometroko lasterketak egiteko. Billabonara joan eta etorri eta Donostian autoa utzi eta korrika Ordiziaraino etorritakoa da. Bestela egunero 25-27 kilometro egiten ditu. "Kilometroak sartu beharra dago bestela hanketako musku-luak nabaritzen dute". Egunero entrenatzen du, ona egin edo txarra egin. Ordiziako Majori kiroldegiko medikuaren laguntza du. Psikologikoki ere prestatuta egon behar izaten da. Psikologikoki nola prestatzen den galdetu diogu: "ez dakit, segi eta segi. Buruari engainu

"Postuak eta denborak ez dira garrantzitsuak. Parte hartu eta ahalik eta ondoena bukatzea da garrantzitsua"



txikiak egin behar zaizkio". Emaztea alboan izaten du eta berak laguntzen dio eta ura, janaria eta animuak emanez.

Aurretik Santanderren eginda zegoen beste ehuneko bat. Bertako giroa gustatu egin zitzaion, oso lagun giro atsegina aurkitu zuen. Beraz, animatu eta bigarren bat egitea pentsatu zuen. Denboraz, berdintsu bukatu zituen "baina Calellakoa gogortse-agoa izan da, denbora gehiena bakarrik egin behar izan nuen eta", aitortu digu.

Hurrengo proiektua

Senegalen, astebeteko proba du begiz jota. 260 kilometro dira guztira, egunean 25 kilometro inguru egiteko. Babesle edo patrozinatoreren bat bilatzeko asmoa dauka, garestiak ateratzen baitira era honetako bidaiak. "Hasieran gehiago egiteko gogorik gabe bukatzen da baina handik bi egunera, hurrengo proba non ote dagoen jakiten saiatzen zara. Sariak ematen, 65 100 kilometroko lasterkaldi egindako emakumezko portugaldar bat zegoen".



sugaar
TABERNA

Elkano kalea, 11 ORDIZIA 943161958
www.galeon.com/sugar

ALAI

Taberna
Kafetegia

*Festa zoriontsuak opa
dizkizuegu denoi*

Urdaneta, 2 ORDIZIA

MIAMI
kafetegia

Etxezarreta kalea
ORDIZIA

ALDASORO

Taberna - Jatetxea

Festa onak pasa!

Urdaneta, 27 ☎ 943 88 00 23 - 943 88 11 40 ORDIZIA

Oier Romero ordiziarra lan praktikak egitera Austriara joan eta bertan errugbian jokatzeko aritu da:

"Hemen baino amateurragoa da errugbia Austrian"

Oier Romero 22 urteko ordiziarra dugu. Batxilergoa Goierri Lanbide Eskolan egin, urte betez Arrasaten ingenierritza ikasten baina ez zen ondo joan eta mantenimenduko modulu bat egitera pasa zen Oier. 2 urte igarota Austriara joateko bekak ateratu ondoren animatu egin zen, aurkeztu eta klasean 12 pertsonen artean izan zen aukeratua. Lan praktikak egin zituen ABB lantegian. Robotika arloan aritu zen. Han zegoela batzuk errugbian ari zirela ikusi, galdetu eta beraiekin jokatzeko hasi zen. Ondoren Austriako selekzioarekin ere aritu zen, azkenik ekainaren 29an bueltatzeko.

A.C.: Nondik datorkizu zuri errugbi zaletasuna?

O.R.: 10 bat urte nituela Bustuntza auzoko lagun zaharrago batzuk animatu ninduten entrenamenduetara joan nendin eta horrela hasi nintzen. Larunbat batean gazte pila batekin batera entrenatzera joan Trebujanora, gustura har-



tu nuen eta hor jarraitu nuen bizpahiru urtetan. Gero futbolearen ere hasi nintzen baina azkenean errugbira bueltatu eta gaurdaino hor jarraitzen dut. Giro ona zegoen gainera jendearen artean.

A.C.: Errugbiari dagokionez zer mailatan dago Ordizia?

O.R.: Euskadi mailan nibel ona daukagu eta estatu mailan hor gabiltza. Ligan lehen nazionalen gaude. Hortik gora lehen maila berezia eta ohorezko maila daude. Orain hiru urte sortu zen lehen mai-

la berezia eta gu hor aritu ginen. Baina egur dezente jaso genuen espainiar taldeek diru gehiago baitzeukaten eta fitxaketa ugari egin. Hemen ikusi genuen berriro igotzeko atzerritarrek ekarri beharko genituela herriko jendearekin ez zela nahikoa eta horregatik 3 ukrainiar etorri ziren. Bat ez zen ondo moldatu eta itzuli egin zen, bigarren bat oso ondo eta gustura aritu da eta hirugarrenak, Andrei-k zorte txarra izan zuen lehen neurketan lesionatu egin baitzen. Dena den honek, Shasha-k

bezala, datorren denboraldian ere jarraituko du Ordizian. Seniorretan bi talde daukagu, veteranoena beste bat, juniorretako bat eta infantiletan beste bat. Lehen emakume taldea ere bazegoen.

A.C.: Lan praktikak direla eta Austriara joateko aukera izan duzu. Zer moduz Vianan?

O.R.: Hasieran hemendik joan ginen 12ak elkarrekin ibiltzen ginen. Gero lehen astean hango jendearekin harremanak hasi ginen pixka bat, akademian egindako festa baten aitzakiaz. Gero hango errugbi talde batekoekin hasi nintzen eta lagun asko egin nituen. Han jende euskaldunarekin ere egin genuen topo eta noiznahi geratzen ginen futbolearen aritzeko edo garagardoren bat hartzeko. Vianan parke asko daude eta han ohiakoa da lagunaren artean parkeetan futbolearen aritzea. Bertako kirol nagusiak futbola eta eskia dira eta parkeetan futbolearen ari direnean segituan esaten dizute ea jokatu nahi

URBITARTE tolare sagardotegia



Uztailaren 23tik aurrera
Erretegi modura zabalik

Tel.: 943 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN

ETXEBIZITZA BERRIAK SEGURAN



Azken etxebizitzak!

HERRI ERDIAN

- ✕ 2 logela, egongela, sukaldea, jangela, bainugela 17.500.000 pezetatik hasita.
- ✕ Duplexa: 4 logela, egongela, sukaldea, jangela, 2 bainugela 23.000.000 pezetatik hasita.
- ✕ Garaje itxiak aparte 2.100.000 pezetatik hasita.

ERAGIN S.L. inmobiliaria Tel.: 943 474699 - 609 40 30 81
Marina Kalea, 10 - 1.F DONOSTIA

duzun. Gu normalean peruar eta bolibiar batzuekin aritzen ginen. Gero ikasle egoitzan ere jende asko ezagutu nuen.

A.C.: Eta nolatan hasi zinen errugbian jokatzen Vienan?

O.R.: Korrika egitera parke batera joaten ginen, 9 Km.ko luzera zuen parke batera, eta batzuk errugbian ari zirela ikusi nuen. Galdetzea bururatu zitzaidan eta baiezkoa esan zidaten. "Donau" (Danubio) taldekoak ziren. Entrenatzen hasi nintzen eta berehala esan zidaten ea lagunarteko partidu bat jokatu nahi nuen. Nik baietz esan eta Salzburgoren aurka aritu ginen. Hemen bai aipatu behar dudala Austrian errugbiari dagokionez maila baxua dagoela. Bi maila besterik ez daude eta bakoitzean launa talde daude. Lehen mailako lau taldeak Vienakoak dira gainera. Han errugbia hemen baina askoz ere amateurragoa da. Guk bi taldek elkarrekin entrenatzen genuen, Viena eta Donauk, lehen talde bakarra baitzen. Egia esan oso giro ona zegoen eta ia dena elkarrekin egiten genuen, afariak... Nik ligako 2 neurketa jokatu nituen eta liga Vienak irabazi zuen.

A.C.: Donaun hasi eta Austriako selekzioan amaitu.

O.R.: Behin entrenatzen ari



nintzela Austriako selekzioarekin entrenatzera joan nahi nuen galdetu zidaten. Nik baiezkoa eman nien eta Luxemburgo, Israel eta Norvegiaren aurkako partiduen prestaketetan hartu nuen parte, Mundialaurreak zirela eta. Ia egunero entrenatzen genuen, nahiz eta hemen bezainbeste ez duten exijitzen. Nazionalitate asuntua dela eta ezin izan nuen, ordea, beraiekin jokatu. Beraiek alemanez egiten zuten baina nik zortea izan nuen, selekzioan kataluniar bat ere bazegoen eta. Honek egiten zizkidan itzultzaile lanak.

A.C.: Etorkizunari begira jarrita zer asmo daukazu?

O.R.: Lanari dagokionez hemen mantentzearekin zer iku-

sia duen zerbait topatu nahi dut eta urri hasiera arte itxarongo dut. Arrasaten lan poltsa bat egina dugu eta ea zer gertatzen den. Bestela berriro itzuliko naiz agian Austriara, han lana ia ziurtatua baitaukat, programaziorako batez ere jende asko behar baitute. Hau dela eta alemana ikasi nahian nabil. Ingelesa hobetzeko ondo etorri zait baita ere bidaia hau. Bestalde, errugbiari dagokionez, azkenean hemen geratzen banaiz hor arituko naiz Ordiziako taldearekin lehen maila berezi horretara igotzeko ahalegiak eginez.

A.C.: Jende asko joaten al da Trebujanora?

O.R.: Bai, dezente. Zelaia berriro zigutenetik gehiago gai-

nera. Falta botatzen dena har-maila batzuk edo dira, aterpea bertaratzen den jendearentzat batez ere. Zelai berriak primeran agoantatu zuen lehen urtean baina bigarrean paliza handia jasan zuen eta ezker hegala batez ere nahiko mindu zen, talde asko baikara egunero hor aritzen garenak. Hau ekiditeko askotan Oiangura igotzen ginen baina hemengo zelaia oso gaizki dago edozertarako.

A.C.: Kirol gogorra al da?

O.R.: Ez, hori topiko bat da. Txikitatik dena erakusten dizute eta beldurra segituan uxatzen duzu. Beste kiroletan baina kontaktu fisiko gehiago dago baina burua kontzentratuta izanda normalean ez da arazo larriegirik izango. Gainera edozeinek egin dezake errugbian, nahiz argala izan, altua, lodia... Gaztetan motibazio lanak garrantzi handia du. Beraz, nik jendea animatu besterik ez nuke egin nahi, topikoak alde batera utzi eta errugbian egitera etor dadin. Gu bestalde ikastetxeetara ere joaten gara errugbia zer den azaltzeko eta baita larunbatetan nolabaiteko festak antolatu, partidu bat jokatuaz eta ondoren ogitarteko eta kamiseta bat emanaz.

Aitor Calvillo

IBTi-ONDO AROZTEGIA

Koltxoak
Somierak



Sofak,
altzari mazizoak
haritzezkoak,
gerizezkoak,
gaztainondoak

multisac
— SYSTEM —

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



*Jai zorientuak
denoi!*

Martínez

Jatetxea

© 943 88 06 41

Santa Maria, 10

ORDIZIA



ZEGAMA

OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabal**go Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.



Iritsi direla Santa Ana jaiak

Urte osoa zain igaro ondoren herriko zaindariaren jaiak iritsi dira dagoeneko. Makina bat ospakizun izaten dira urtean zehar baina hauek bezain bereziak ez. Hori dela eta jai batzordeak egitarau oparoa prestatu du egun hauek guztietan herritarrek eta kanpotik datozenek ekintza desberdinez gozatzeko aukera izan dezaten. 15 milioiko aurrekontua dute aurtengo jaiak eta esan berrikuntza handirik ez dela izango oraingoan ere. Tradizioz eta ohituraz hor izango dira danborradak, Santaneroak, boxeoak, pilota partidak, berbenak, txirrindulari proba... Zezenak ere protagonista izango dira Santiago egunean. Aurretik, ohi bezala, haurrek bi egun izango dituzte bereak eta bi emateko eta ondoren, 24ko eguerdiko txupinazoarekin batera, helduen tarteak izango da. Koadrila egunarekin ematen zaie normalean amaiera festei, baina aurtengoan, tabernarien ekimenez, uztailaren 28a ere aprobeztatu egingo da eta hainbat musika talde ekarriko dituzte.

Bai egunez eta baita gauez ere herriko txoko guztietan izango da zerbait. Enparantza Nagusian ez bada, Pilotalekuan, Domingo Unanue Plazan bestela edota Arboledan. Izan ere, Txosna Batzordeak ere bere aldetik prestatu du jai egitaraua. Euskararen eguna, gazteen eguna, preso eta iheslariena eta internazionalista egunaren aitzakiaz hainbat erakusketa eta bestelako saioak izango dira txosna gunean. Berau estaligabeko pilotalekuan eta Arboledan izango da beste behin.

Denentzat eta denetarako aukera dago, beraz, aurtengo Santa Ana jaietan ere. Ondo pasa, beraz, festok!

Zezipilionea-Badago txapeldun

4-2ko emaitzarekin E.R.Matxain Ileapaindegia mendean hartu eta Zezipilionea-Badago taldea izan da XXII. Lagunarteko Futbol Txapelketako irabazlea. Iazko txapeldunetik bere atezain titularren, "Txuspo"ren falta gehiegi nabaritu zuten eta erabakigarria izan zen amaierako emaitzan.

Santa Maria kaleko lanak amaituta

Azkenean, jaiak nagusiak iristerako amaitu dituzte Santa Maria kaleko zoruak berritzeko lanak. Hauts ugari harrotu behar izan dute, banaketan zebiltzan garraiobideei oztopoak jarri, oinezkoiei ere trabak jarri... baina azkenean San Pedro, Etxezarreta, Elkano, Legazpi eta Goen kaleekin gertatu bezala zoru berria ezarri dute. Orain kale Nagusia eta Enparantza Nagusia falta dira herri-guneako lan hauek amaitzeko. Lanok irailean haste-koak dira, euskal jaiak igaro bezain pronto. Asteazkeneroko perian eragina izango du honek, baserritarrek bertan kokatzen baitira. Dena den, periek aurrera jarraituko dute. Enparantzaren jartzen diren postuak pilotalekura eramango dituzte orain urte batzuk gertatu zen bezala. Lan berriok bi urtez iraungo dutelakoan daude udaletxeak.

Dena den, Badago taldeak ere ongi merezia zuen bere lehen txapela irabaztea, otsailetik hona maila ona erakutsi baitute jokalariek.

Finala uztailaren 8an jokatu zen, anexo futbol zelaian jende askoren aurrean. Aurretik 3. eta 4. postuak erabakitzeko neurketa jokatu zuten Tximista eta Urbitarte sagardotegiek eta hemen azken hauek nagusi izan ziren. Arauzko denbora binako emaitzarekin amaituta penalti jaurtiketak izan ziren erabaki zutenak.

Ondoren txapelketan parte hartutako 14 taldeetako jokalariek bazkari oparo batez gozatzeko aukera izan zuten. Pilotalekuan ia 300 lagun elkartu ziren eta bazkaldu ondoren sari banaketa egin zen. Sailkapenaren arabera talde bakoitzak bere trofeoa jaso ondoren sari bereziak eman ziren. Txapelketako jokalaria onenaren saria Zezipilionea-Badagoko Eneko Lasarentzat izan zen, goleatzaile nagusiarena Ferrocarril Oesteko Beñat Zudairerentzat eta finaleko jokalaria onenarena Zezipilionea-Badagoko Gorka

Hernandezentzat.

Festa herriko kaleetara zabaldu zen ondoren eta datozen urteko otsaila noiz iritsiko zain geratu behar hemen-dik aurrera.

60.000 zenbaki salduak

Oraingoan errekorrik hautsi ez bada ere 3.000.000 pta. biltzea lortu du San Fermin zozketa bereziak. Uztailaren 6an egin zen aurtengoan eta ohi bezala jendearen ikusmina piztea lortu zuen. San Jose Zaharren Etxearen alde antolatzen da zozketa hau eta aurtengoan ere gustura geratu dira, parte hartzea handia izan baita. Azkenik 60.000 zenbaki saldu dira, iaz adina eta errekorra ez bada ere Txindoki Tabernako antolatzaileak pozik agertu dira. Saridun zenbakiak ikusgai daude Etxezarreta Kalean dagoen Txindoki Tabernan bertan. Lehen saria 150.000 pta.koa da (59.468), bigarrena 100.000 pta.koa (12.469) eta hirugarrena 50.000 pta.koa (29.768). Sari txikiagoak ere badira ordea.

Aitor Calvillo



IRUNE MUJIK

**OPARIAK - HALTZARIAK - ERRETRATOAK
KUADROAK - ESKUDO HERALDIKOAK
EZKONTZA GONBIDAPENAK
DISEINU GRAFIKOA
(Logotipoak, foiletoak, kartelak.....)**



TEL: 943 88 53 02

GARAGARZA PLAZA 3

ORDIZIA



GOIHERRI, S. L.
Iturgintza

**Urdaneta 24
943 88 11 57
ORDIZIA**

*Festa zoriontsuak
opa dirikizuegu denoi!*

**Sanitarioen instalazioa
Iturriak
Bainuko altzariak
Berogailu eta Gasa**



Jai zoriontsuak denoi!

- ✓ **Keramika**
erakusketa eta
salmenta.
- ✓ **Bainuak, kanilak**
eta osagarriak.
- ✓ **Bainugelarako**
altzari ugari.
- ✓ **Sauna-kabinak eta**
hidromasaia-
bainuak.
- ✓ **Tximiniak, ikatz**
eta egur
sukaldeak.
- ✓ **Iturgintza, gasa**
eta berogailuak.
- ✓ **Igeltseritza**
orokorreen.




Urdaneta Kalea, 41

Tfnoa. eta faxa:
943 88 95 76

ORDIZIA

Eraikuntzako egurrezko materiala eskuragarri: habeak, solibak, tarima...



**PITZADURA,
PIPI eta
HEZETASUNAREN
AURKAKO
TRATAMENDU
FIDAGARRIA**



BERTAN S.L.
EGUR BILTEGIA

VACSOL - WPP TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

**OHOL ETA ALTZARIEN
TRATAMENDUA**



Ibai-Ondo industrialdea, 5 pab. 18 area

ITSASONDO

Tel. /Faxa: 943 163 102

Lazkao Benin eraikiz



diru laguntza



Lazkao Benin eraikiz

Lazkaoko sendotzako taldeak Benin herrialde afrikarrari laguntzeko ekimena eraman du aurrera. Hango pobrezia ikusita, herrialde aurreratua goen laguntza eskaintzeko erabakia hartu zuen Elizbarrutiko Misioen Ordezkaritzak. Pasai Antxo, Oñati eta Lazkaoko herriak koordinatu zituzten Beningo jendeari laguntzeko. Lazkaon sendotzako taldea izan da batez, ere lan honekin arduratu dena.

Lazkaoko gazteek gogoz bultzatu dute Benin herrialdeari laguntzeko ekimena. Baina sendotzako taldeak, herritarren laguntza ere izan du eta honetarako hiru ekintza ezberdin antolatu dituzte. Alde batetik, Lazkaoko jailetan Beningo bizitzaren inguruko erakusketa antolatu zen udaletxean; erakusketa honekin bertako jendea nola bizi den, eta zein ohitura dituzten ezagutzeko aukera izan genuen lazkaotarrok. Sendotzako talde-kideek txartel salmenta antolatu dute bestetik. 250 pezetako diru laguntza-trukean txartelak saldu dituzte dirua lortzeko. Honez gain, ekainaren 23 eta 24an Lazkao eta Olaberriko elizetan lortutako dirua ere Beninera bidali dute.

Baina diruaz gain, eraikuntzako lanabes eta mate-

rialak ere lortu dute Lazkaoko sendotzako taldekoek. Ekimen guzti hauekin Lazkaon 300.000 pezetatik gora lortu dituzte Beningo jendeari laguntzeko.

Zalantzarik gabe, ekimen honen arduradunak pozik daude lortutako emaitzekin, eta baita, herritarrengandik jasotako laguntzarekin ere. Baina badakite lana ez dela amaitu, eta Benin herrialdeak oraindik baduela herri aurreratuaren laguntza beharra. Horregatik, eta hurrengo ikasturteari begira, martxan jarriko dituzten ekimen eta ekitaldiak pentsatzen hasi dira jadanik. Besteak beste, irailean uda saioan Beninen izandako bi gazteren hitzaldia antolatu nahi dute, haiek han bizitakoa kontatzeko aukera izan dezaten.

Bitartean, eta lagundu nahi duenarentzat, Kutxan kontu bat dago zabalik Beninen aldeko dirua jasotzeko. Kutxako kontu zenbakia hau da: 2001.0049.710123458051. Beraz, sendotzako taldearen izenean eskerrik asko orain arte lagundu duzuen guztioi, eta benindarrei lagundu nahi dieten guztiei berriz, hortxe daukatela diru laguntza sartu beharreko kontuaren zenbakia.



Sanmielelan pilota txapelketa

Urtero antolatzen den moduan aurtengoan ere San Mielelan esku pilota txapelketa izango da Lazkaon. Baina berrikuntza bat ekarriko digu aurtengoan. Orain arte, benjamin, alebin eta infantil mailako txapelketa baino ez zen izaten; aurtengo ordea, jokalarien adin eremua zabaldu dute. Pilota ikusteaz gain, jolastea ere atsegin duten herritarrek aukera izango dute aurtengo San Mielelan beren abilezia frogatzeko. Lehen aldiz, herritar guztiei irekia dagoen kadete, jubenil eta helduen mailako pilota partidak antolatuko dituzte. Nagusien txapelketa hau herrikoia izango da eta pilota bigunekin jolastuko dira partidak. Aipatu bezala, guztiei zabaldutako txapelketa izango da hau, eta beraz, animatu eta parte hartu nahi duten guztiek Joxemiel Barandiaran kiroldegian eman beharko dute izena uztail osoan zehar. San Miel hauetan, gaztetxo nahiz nagusiek izango dute, beraz, pilota gozatu eta txapelketan parte hartzeko aukera.


XXVII. Udako euskal ikastaroak

Dagoeneko Lazkaon Udako Euskal Ikastaroak antolatzen diren XXVII. aldia da. Ikastaro hauetan, ordea, ikasteaz gain ondo pasatzeko aukera ere izaten dute ikasle, irakasle zein herritarrek. Hori dela eta, Lazkaoko Maizpide Euskaltegiak, Udalarekin batera, hainbat ekintza antolatu ditu udako gauak alaitzeko. Uztailaren hainbat ekintza izan dira, eta abuzturako ere badaude iragarritako ekitaldi batzuk:

- **Abuztuak 7, asteartea,** gaueko hamarretan: "Ai Martin" bertsoak, musika eta antzerkia batzen dituen ikuskizuna izango da Eñaut Agirre eta Xabier Legarretaren eskutik
- **Abuztuak 21, asteartea:** "Kontu-kontari, kantu kantari" emanaldia eskainiko du Doroteo Zobarane. Hau gaueko bederatzieta izango da.
- **Abuztuak 28, asteartea:** Koldo Ameztoy hainbat ipuin kontatuko dizkigu gaueko bederatzieta.
- **Abuztuak 30, osteguna:** Abuztua ongi bukatzeko, Amaia eta Ruth trikitilariak alaituko dute afalostea beren trikiti eta pandero doinuekin.

Ekitaldi guzti hauek Maizpide euskaltegiko zinema aretoan izango dira.

Oihana Sarasola



Udako kirol ikastaroak

47 haur eta gaztek parte hartu dute Udalak eta Udal kiroldegia antolatutako kirol ikastaroetan. Ekainaren 25ean hasi eta joan den osteguna, uztailak 20 arte luzatu dira ikastarook. 16 urte bitarteko gazteek gure artean ezohizko diren kiroltan parte hartzeko aukera izan dute, hala nola, espeleologia, eskalada, piraguismo edo arku tiraketan. Batzbestek 10-15 orduko iraupena izan dute eta herriko txoko desberdinetan eman dira. Troskaetako koban aritu zirenespeleologiako ikastaroan parte hartu zuten 12 gazteak ekainaren azken astean. Jentilbaratzako

paretak igotzen ikasi zuten eskaladan parte hartu zuten 9 gazteek uztailaren hasieran. Jarraian Agauntza errekan, Otadizelai inguruan aritu ziren piraguismoa ikasten 17 ikasle eta berriki, Auzoeta kiroldegian arku tiraketan aritu dira beste 9 gazte. Aukera politik guztiak ere udarako opor luzeei irtenbide bat emateko.

Heriotza

Uztailaren 4an hil zen Benito Auzmendi Agirre. Doluminak sendiari.

Agurtzane Bikuña

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28



✓ Aholkularitza
juridikoa

✓ Entrepresa
zerbitzuak

✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel.: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
Kale Nagusia, 2 BEASAIN


IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

San Bartolome jaiak 2001

Abuztuak 23, osteguna, Koadrilen Eguna:

9:30etan: Herritarrentzat Txirindu probak, XXXI. Apeaderora Igoera (Jabier Berasategiren Omenez IV.a)

11:30etan: Koadrilak mozo-roturik plazan biltzea, Oria txarangarekin.

12:00etan: Festen hasierako "Belearen Jaitsiera", kanpai-jotze, suziri eta pregoia.

14:00etan: Koadrilen bazkaria.

17:00etan: Bezpera nagusiak San Bartolome Ermitan. Ondoren, herritarrentzat bola joko-a, hasiera

18:00etan: XXIV. Zegamako Futbito Txapelketaren finala.

20:30etan: Mozorroen sari banaketa.

00:00etan: Drindots.

Abuztuak 24, ostirala, San Bartolome Eguna:

9:00etan: Herriko txistulari taldearekin goiz eresia.

11:00etan: San Bartolome Ermitatik Parrokiara prozesioa txistulari, dantzari eta herriko agintariekin batera. Ondoren Meza Nagusia.

12:30etan: Soka dantza herriko agintarien eskutik.

13:30etan: Trebeska dantza taldearen saioa herriko plazan.

18:00etan: Pilota partidak. Lehen partida: San Martin Feriko finalaren errebantxa: Jesus eta Juan Zabaleta anaiak- Asier Berasategi eta Iker Gorrotxategiren aurka. Bigarren partidua: Profesionalen saioa.

20:30etan: Trebeska Dantza taldearen II. saioa.

20:00etan: Buruhandi, erraldoi eta zankodunak, herriko txistulariekin batera.

00:00etan: Etzakit.

Abuztuak 25, larunbata, San Bartolome bigarrena:

7:00etan: Sokamuturra Urantzu dultzaineroekin.

9:30etan: Diana Urantzu dultzaineruekin.

10:00etan: San Bartolome ermitan hildakoen aldeko meza izango da.

10:00etatik 13:00etara: Elkarleen arteko paella prestaketaren lehiaketa plazan. Ondoren bertaratuen artean banatuko da.

11:30etan: Olaberriko Elkar-teak antolaturik "toka" txapelketa.

13:30etan: Bertsolarien eta dultzaineroen lehen saioa herriko plazan (Iñaki Murua, Andoni Egaña eta Angel M^a Peñagarikano)

15:30etan: Herri mailako plater hausketara apezadon.

17:00etatik 19:00etara: Aitxuri Herri Eskolako haurren eskulanen erakusketa eskolan.

18:30etan: Bertsolariak.

20:00etan: Erraldioen alardea, buruhandi, zankodun eta dultzaineroekin.

00:00etan: Joselu Anaiak.

Abuztuak 26, igandea, Umeen Eguna:

10:00etan: LXVIII. San Bartolome txirrindulari proba



afizionatuentzat.

11:00etan: Probintziako Bolo Txapelketa, Txarapeko bolalekuan.

11:30etan: Haur jokoak.

17:30etan: Bolo Txapelketaren amaiera eta sari banaketa.

18:00etan: Herri kirolak pilotalekuan.

19:00etan: Sardina jatea eta sagardo dastatzea doan plazan.

20:00etan: Erraldoi, buruhandi eta zankodunak trikitilarien doinuez lagundurik.

20:30etatik 22,00etara eta 00,00etatik 03:00etara Egan.

01,00etan: Suziri eta traka erretzea.

Irailak 1, larunbata:

Herriko tabernari eta elkarte-ek jarritako jaieguna.

18:00etatik- 21:00etara: Hernaniko albokariak eta trikitilari gazteen kalejira herrian zehar.

19:00etatik 20:00etara: Buruhandi eta erraldoiak.

23:00etatik 03,00etara: "Trikizio" taldearekin dantzaldia plazan.

Barrenaldekoen afaria

Uztailaren 28an egingo dute Barrenaldekoen afaria. Izen ematea, Ostatur egun behar da, uztailaren 25a baino lehen (943801299).



Jubenil mailako txirrindulari proba

Uztailaren 8an jokatu zen jubenil mailako txirrindulari proban Carlos Cuervo Mapfre taldekoa izan zen garaile, bigarren Jesus Manuel Chamorro Muebles Ordiziakoa eta 3. Angel Etxedona. Mendiko saria Jesus Manuel Chamorrorentzat izan zen ta taldekako sailkapenean Skoda izan zen lehena.

Herriaren etorkizuna aztertzeke urratsak

Idiazabaldarrek, hemendik urte batzura zer nolako herria nahi duten adierazteko Udalak egindako proposamenak harrera ona izan du. Hori dela eta, etorkizunari begira jarri eta Idiazabali buruzko azterketa martxan jartzea erabaki da.

Horretarako lehendabiziko bilera datorren astelehenan (uztailak 23) egingo da arratsaldeko zazpitan Pilarreneako ganbaran. Bilkurara, etxeetara helarazitako galdetegia bete zutenez gain, interesa duten herritar guztiak gonbidatu ditu Udalak.

Etxegarate

Etxegarate bikoizteko lanetan, aurreko hilabeteetan baino erritmo biziagoan ari dira azken asteotan. Egun argiz eta gauzez aritzen dira lanean hainbat gunetan. Gipuzkoako Foru Aldundiko iturrien arabera, datorren udarako lanak bukatuta egongo dira.

Bide berriaren ertzetan dauden lur sailetako jabeak, Udalarekin eta Diputazioarekin batera, leku horietarako sarrerarteera egokiak non eta nola egin aztertzen ari dira.



*Uda kanpainan 83 haur eta 8 monitore ari dira parte hartzen.
Arg.: Lurdes Intxausti.*

Besteak beste, azterketa nola egin, zein metodo ezarri eta aurrera begirako urratsak erabakiko dira.

Triatloia

Gaur (ostirala) jokatu da Idiazabalgo Triatloia. 21 lagun, zazpi talde arituko dira nor baino nor, igerian, korrika eta bizikletan. Taldekide bakoitzak hiru kirol horietan aritu beharko du. Ondoren, parte hartu dutenek, afaria egingo dute futbitoan.

Uztaileko kirol eskaintza zabalagoa da ordea. Uda kanpainan 83 haur eta 8 monitore ari dira parte hartzen. Arratsaldeko patin ikastarotan berriz 16 herritarrek eman dute izena.

Guztiak hilaren 27an bukatuko dira. Abuztuan Kiroldegia itxita egongo da eta irailaren 3an zabalduko dute berriro ere.

Xabier Urteaga

Ausa-Gazteluko indusketarako deialdia

Aurtengo abuztuan, eta azken bi urteotako lanari jarraipena eman asmoz, Aranzadi Zientzia Elkarteko antropologia saileko ikerlariak Ausa-Gaztelura etorriko dira. Dakizuenetz, mendi honen tontorrek garai bateko gotor-

leku baten arrastoak jasotzen ditu. Beraz, eta indusketaren arduradunen eskariz, Zaldibiako udalak herritar guztiak gonbidatzen zaituzte Gaztelun egingo diren lanetan parte hartu eta zure laguntza emateko.

Lanpostu deialdia

Kontabilitate, diruzaintza eta udaleko administrariari dagoen eginkizunetan laguntzeko, langile bat lanaldi erdirako kontratatzeke asmoa du Zaldibiako udalak. Irailean hasi, eta urte bukaera arte iraungo luke lanpostu honek, gutxi gora behera, lau hilabete. Honakoak dira bete beharreko baldintzak: enpresa zientzietan lizentziatua izatea, euskarazko 3.maila (EGA), informatikako ezaguerak eta lanpostuaren eginbeharrarekin lotuta dauden trebetasunak edukitzea. Langile aukeraketa, oposaketa/lehiaketa bidez egingo da.

Iñaki Gurrutxaga - Sarai Jauregi

Aurtengo Udal aurrekontuan inbertsioetarako dirutza handia

Maiatzaren amaieran onartu zen 2001. urterako udal aurrekontuaren daturik azpimarragarriena inbertsioetara bideratuko den dirutza kopuru handia da. Aurtengo urtean gure herrian inbertsioetan inoiz baino dirutza handiagoa erabiliko da, aitzitik beraietara 70 milioi pezeta inguruko diru kopurua bideratuko baita.

Aurrekontu arrunta

2001. urtean aurrekontu arrunterako 133 milioi pezeta inguruko dirutza bideratuko da. Bertatik gehiengoa ondasun arrunt eta zerbitzueterako erabiliko da, hain zuzen 82 milioi inguru. Pertsonal gastueterako 29 milioi inguru eta gainontzekoak interes, kapital transferentzia eta abarrei dagozkienak izango dira.

Aipatu aurrekontu arrunt honetaz gain eta hasiera adierazi bezala, azpimarragarriena inbertsioetara bideratuko diren beste 79 milioi pezeta inguruko dirutza da.

Inbertsioetarako aurrekontua

Inbertsioetara bideratuko den dirutzaren bitartez herrian hobekuntza garrantzitsuak egin ahal izango dira, guztiak herritarren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko baliagarri izango direlarik. Hainbat azpiegituren berrikuntza egingo da, hain zuzen inbertsioetako dirutzatik kopuru esanguratsua bat herri guneko ur sarea berritzeko erabiliko da. Bere aurrekontua 25 milioi eta erdi pezetakoa da.

Jarraian gure herrirako 2001. urterako aurreikusita dauden inbertsioen aldetik garrantzitsuenak jaso ditugu.

Igerilekuan egingo diren itxitura berritze eta txukunketa lanetarako 10 milioi inguru erabiliko dira. Gabirialde kalean espaloiak egiteko 3 milioi eta erdiko dirutza. Zumaralde kalea eta kiroldegia artean argiteria jartzeko milioi erdiko dirutza. Herri eskola, kiroldegia eta kultur etxean gas sarea sartzeko 2 milioi inguru. Eskola etxeko



saneamendu lanetarako 6 milioi inguru. Kiroldegian larrialdietarako ate handi baten irekitzea milioi bat inguru. Mons. Irizar etorbidean aparkalekuak egiteko 2 milioi eta erdi inguru. Goierriko herrien artean eratu berria den industrial elkarterako 9 milioi inguru. Herrian seinaleztapen turistiko jartzeko 2 milioi eta erdi inguru. Zaharren egoitzako berrikuntza lanetarako zazpiehun mila pezeta eta frontoi txikian argiteria jartzeko seiehun mila pezeta inguruko dirutza. Herri eskolari informatika programa jartzeko zazpiehun mila pezetako dirulaguntza eta ipar/hegoa programaren barnean hirugarren munduari %0,7ko dirulaguntza, hau da milioi bat pezeta inguru.

Oporraldi ona opatuz

Haur eta gaztetxoak jadanik oporraldian aurkitzen badira ere, oraindik herritar gehienak udaldia hasi aurreko azken lanegunetan aurkitzen garen honetan, jaso ezazue lerro hauetatik oporraldi atsegin baterako gure desiorik zabalena.

Goierritarra aldizkariak ere oporrak hartzen dituenek, eskuartearen duzuen ale hau udaldiaren aurreko azken alea duzue. Zuen oporrak igarotzera kanpora joango zareten herritarrei bidai on bat izan dezazuela opa dizuegu, herri eta inguruan geratuko zaretenei berri bertako baliabideez gozatuz oporraldi atsegingarria izan dezazuela. Guztiak ongi izan, oporraldiaz gozatu eta itzulera arte.

Aitziber Murua



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

Iurre Auzoa
OLABERRIA

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordue: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

Andramari festak prest

Aurten ere herriko festen egitaraua prestatzeko garaia iritsi da eta aspaldiko ohiturari jarraituz, Andramari bezperaren bezperan, hau da hilaren 13an gibel jatearekin emango zaie hasera. Jarraian duzue egitaraua:

Abuztuak 13, astelehena:

20:00etan: Ohiko gibel jatea Liztormendi elkartearen.

Abuztuak 14, asteartea: Andramari bezpera:

16:00etan: Haur jolasak.

18:00etan: X. Andramari pala txapelketaren finala.

20:00etan: Kanpai bueltakoak eta suziariak festei hasera emateko.

23:00etan: Haur eta helduen danborrada.

Ondoren eta goizaldera arte, Triki Ta ke taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 15, asteazkena: Andramari eguna:

9:00etan: Txistularien goiz eresia etxez etxe.

11:00etan. Meza nagusia.

12:00etan: Txakolin dastatzea izango da herriko plazan.

17:00etan: Andramari bola txapelketaren hasera.

19:00etan: Motozerraz egurra lantzen.

23:00etan: Bigira taldearekin dantzaldia goizaldera arte.

24:00etan: Asto lasterketa.

Abuztuak 16, osteguna: San Roke eguna:

9:00etan: Txistularien goiz eresia etxez etxe.

11:30ean: Meza Nagusia.



Ondoren: Amezketako Arkupe dantza taldearen ikuskizuna.

17:00etan: Andramari bola txapelketaren azken saioa.

20:30ean: Herri afaria plazan, Lizaso eta Lazkano bertsolariekin.

Afal ondoren eta goizaldera arte, Triki Ta ke taldearekin dantzaldia.

24:00etan: Mozorro gaua, mozorrotuen desfilea eta sari banaketa. Sariak: 1. Saria, 10.000 Pzta.; 2. Saria, 5.000 Pzta.; 3. Saria, 3.000 Pzta.

Mari Flor Mendizabal

Oharra

Abuztuaren 16ko herri afariari dagokion oharra: mahai banaketarako izen ematea arratsalde berean 7ak aurretik.


Zeraingo Udalak Andramari jai onak opa dizkie herritar eta kanpotarrei



ZERAINGO UDALA

Abuztuko egun horiek oso aproposak izan daitezke bertako txoko, ibilbide eta altxor historiko-artistikoak ezagutu ahal izateko.

Zatoz, gonbidaturik zaude.





Herriko jaiak, abuztuaren 12tik 17ra

Abuztuak 12, igandea:

11:30etan: Suziri eta kanpaiek festen hasiera iragarriko dute.

12:00etan: Meza nagusia.

13:00etan: Latxa ardiaren esnearekin eginiko gazta eta baserriko ogiaren dastaketa.

18:00etan: Dantza jaialdia, pilotalekuan: Lapurdiko Arbonako 'Primadera' dantza taldea eta herriko 'Goruntz' dantza taldeak.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketa.

Ondoren: Kalejira.

Abuztuak 14, asteartea:

Goiz eta arratsalde, biribilketa baserriz baserri herriko txistulariekin.

17:00etan: Gaztetxoaren arteko futbol partidak.

22:00etan: Bertsolari jaial-

dia, Parrokiko antzokian: Jon Azpillaga, Jose Agirre, Maialen Lujanbio, Jokin Soroza-bal, Ainhoa Agirreazaldegia eta Iñaki Apalategi.

Gauean: erromeria Bigira taldearekin.

Abuztuak 15, asteazkena:

Andra Mari eguna:

11:00etan: Meza nagusia.

12:15etan: X. Ormaiztegitik Gabiriarako igoera txirrinduz herriarrentzat.

18:00etan: kirol jaialdia pilotalekuan: herri kirolak eta pilota partidak herriko alebenien eta afizionatuen artean.

Arratsalde eta gauean: Sorbeltz musika taldearekin dantzaldia eta mozorro dantza goizaldera arte.

5:00etan: Baratzuri zopa, Osinalde elkartearen.



Abuztuak 16, osteguna:

San Roke eguna:

11:00etan: Meza nagusia.

Ondoren: Goruntz dantza taldeko gaztetxoaren saioa.

16:00etan: Umeentzako parke erraldoia.

17:30etan: Ume jolasak eta mozorro dantza.

18:30etan: Bola eta toka lehiaketek jarraituko dute.

19:30etan: Sagardo eta txistor dastaketa.

21:30etan: Koadrilen arteko afaria Ostatu jatetxean. Afariarako txartelak abuztuak 13 baino lehen erosi behar dira.

Gauean: Trikizio.

5:00etan: Baratzuri zopa, Erbie elkartearen.

Abuztuak 17, ostirala:

San Roke Txiki eguna:

11:00etan: Meza, herrien hildakoen alde.

12:00etan: XX. Tiragoma txapelketa.

12:00etan: Bola eta toka herriarrentzat.

18:00etan: Antzinako ohiturari jarraituz ardo beltz banaketa herriko zagiardotik.

Arratsalde eta gauean, Joselu Anaiak musika taldearekin dantzaldia goizaldera arte.

Abuztuak 18, larunbata:

17:00etan: Herria txukuntze-
ra etorriko gara, eta ondoren, lanean aritu diren guztientzat afari-merienda.

Aimar Maiz



Jubilatuen eguna

Uztailaren 15ean ospatu zen urtero bezala, herriko adinekoen eguna. Eguerdiko 12,30etan Mikel Goianguru Elizan izan zen meza eta ondoren mahaiaren inguruan elkartu ziren Lierniko

Mujika jatetxean.

Egun hartan bertan ireki zituen berriz ere ateak elizak, azken bi hilabete hauetan itxita egon baita, altare aldean egin diren berrikuntzak direla eta.

San Pedro jaien errepikapena

Uztailaren 7an San Pedro jaien errepikapena izan zen. 9 bikotek parte hartu zuten patata tortila lehiaketan eta Juanita eta Iñakik egin zuten, epaimahaiaren iritziz, aurtengo tortilarik goxoena.

Ondoren herriko plazan festei amaiera txukuna emateko berrogeita hamar lagunek afaldu zuten. Bukatzeko, giro edrra jarri zuen Trakets taldeak.

Iñaki Ugalde



Beasain futbol taldearen aurkezpena



Uztailaren 16an, astelehenean egin zuen lehenengo entrenamendua, 2.B mailako Beasaingo Futbol taldeak. Aurkezpen ofiziala uztailaren 23an egingo da. Aurten gainera 10. denboraldia betekoa du maila honetan. Entrenatzaile lanetan Mundarrotik datorren Xabier Estabanez dutela, aurpegi berri asko ikusi ahal izan ziren. Hona, zeintzuk osatuko duten aurtengo denboraldia. Ion An-

der Elgarresta, Javi Gonzalez, Esnal, Joseba Romero, Iker Nuñez, Iakes Gibelalde, Gaizka Iriarte, Sergio Pedraz, Edu Jurado, Ion Ander Hombre eta Iker Remirezek taldean jarraituko dute. Kanpotik etorriko direnak berriz hauek dira; Antiguotik Cuesta eta Arregi, Mundarrotik, Rafita, Rios eta Urkiola, UPV-tik, Aizpurua eta Zigor Vazquez eta Urrestarazu.

Baja izango diren jokalariek berriz hauek dira; Martin De Marcos, Imanol Gonzalez, Unai Egurbide, Ekain Avila, Luis Garmendia, Andoni Zabaleta, Unai Usandizaga, Endika Mendizabal, Haritz Mujika, Iker Alvarez eta Egoitz Sukia.

Denboraldi berriko aurkezpena egin ondoren beraz entrenamendu lanari ekin beharko diote orain. Bazkide berrien kanpaina ere martxan jarriko dute eta jendea animatu nahi dute bazkide kopurua handitu dadin.

Nekane Altuna

Kiroldegia abuztuan ere irekita

Erabiltzaileek hala eskatuta, aurten ere iazkoari jarraituz, atek irekita izango ditu Antzizar Kiroldegia. Ordutegi berezia izango du ordea. Lanegunetan, 9:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 13:00etara. Jai egunetan ez da irekiko.

Santiago Bidea bulegoa

Gipuzkoako Santiago Bidelagunen Elkartek urte batzuk daramatza dagoeneko ibilbide historiko hau zaintzen, bai seinaleztapena argi eta txukun mantentzen eta bai bidea bera itxuratzen premia dagoenean. Esperientzi hori besteen zerbitzura jartzea dute helburuetako bat Elkarteko kideek. Elkarte honek bulego bat zuen Donostian erromes joan nahi zutenei laguntza eta argibideak eskaintzeko. Orain, Beasainen ere laguntza hori eskuratzeko modua dago. Elkartek ostegunetan eskainiko du zerbitzu hau 19:00etatik 21:00etara Igartzako Belen Ermitan. Santiago Bidea egiteko informazioa emango da aipaturiko lekuan eta gainera, gaiari buruzko hainbat argitalpen eskuratu ditzake bertaratzen denak.

Antzizar triatloi proba

Arriarango urtegiaren inguruan jokatu zen uztailaren 8an Antzizar triatloi proba. Ehundik gora izan ziren partehartzaileak, eta egin zuten zirkuitua asko gustatu zitzaizela adierazi dute.

Igeriketan 1,5 kilometro egin behar izan zituzten, 38 kilometro txirrinduan eta 10 kilometro lasterka. Hasieratik Asier Bilbao Gernikako Kebi Sport taldekoa nagusitu zen eta aldea handiagotu egin zuen gainera helmugaratu zenean. 1.56.45 denbora bete zuen. Gorka Mujika 2. sailkatu zen (Eibar Triatloi Taldea) 2.00.18 denborarekin eta 3. sailkatu zen Miguel Cano (Gasteizko K3 J. Luck taldekoa) 2.02.14 denborarekin.

Emakumezkoetan, Ainara Iñarritik 2.23.09 denbora bete zuen (K3 J. Luck), eta bere atzetik iritsi ziren bere taldekide diren, Lourdes Balza, 2.26.20 denborarekin eta Maite Saratxo, 2.28.16 denbora beteaz.

Antzizar taldetik lehen sailkatu zena Aitor Zabaleta izan zen 2.06.57 denborarekin. Jarraian Daniel Zabalo (2.16.55) eta Jose R. Altuna (2.27.55). Taldeko sailkapenean berriz, K3 J. Luck gailendu zen.

Bestalde gogoratu uztailaren 15ean Antzizar Triatloi taldeko Aitor Eskalante, Jon Aranburu eta Andoni Illarramendik Austrian jokatu zen Ironman proban parte hartu zutela. Talde bereko Aitor Zabaleta, berriz, Frederiziara (Danimarka) joango da abuztuaren 4an bertako Ironman proban parte hartzera. 3,80 km igerian, 150 km txirrinduan eta 42 km korrikan izaten da proba honetan bete beharreko lana.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN

EROSKI

KAFETEGIAK

*Jai zoriotsuak
opa dizkizue*

943 88 27 93

ORDIZIA



"Ni ere Kilometroak lagun" (I)




Xabier Agirre, aktorea: "Gazte-gaztetatik ezagutu dugun festa da. Festa handi bat. Erabat beharrezkoa iruditzen zait, beharrezkoa bezain egokia. 100.000 euskaltzale elkarrekin ikustea, festa eta aldarrikapen bat eginda"



Izaro Iraeta, aurkezlea: "Oskorriren abestiak dioten bezala '25 urte eta gero hau'. Kilometroak berriro Beasainen, guztiok bat egin behar dugu"



Elixabete Garmendia, kazetaria: "Hego haize sargoritan Beasaingo maldatan deskubritu eta estreinatu genuena"



Xabier Mendiguren, idazlea: "Pausu txiki askorekin, kilometro handia"



Mari Karmen Garmendia: "Ikastolak eta Kilometroak, arbola zaharren kimuak"



Xabier Mendiguren, Kontseiluko arduraduna: "Kilometroak: Euskara ametsetik errealtatera egunero egiten ari den etengabeko bidaia luzearen sinbolo indartsua"



Mila Aierbe, astrologa: "Herri heziketa neurtzeko modu bat da Kilometroak, herria neurtzeko era bat hizkuntzarentzat"



Iñaki Murua, bertsolaria: "Euskarak batu egin behar gaitu, eta banaketa garai hauetan inoiz baino ozenago 'denon Kilometroak' direla esango nuke"



Jakoba Errokondo: "Euskaraz bizitzera iristeko beste urrats bat da Kilometroak niretzat"



Andramendi. Beasaingo Ikastola, Urbialde 2 z/g. 20200 Beasain.

E-posta: beasain@ikastola.net

Tel/fax 943 88 96 17

Etxebizitzak

salgai

➡ Etxebizitza salgai Errioxan. Bi familientzako egokia. 943160428. Gauetz deitu.

errentan

➡ Pinedan, abuztuko 2. hamabostaldian, etxea alokatzen da. 943885703.

➡ Jakan apartamentua alokatzen da udan. Igerilekuarekin. 943216684.

➡ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da. Nekazal gunea. Abuztuko bigarren hamabostaldia libre. 948539381.

➡ Pisua alokatzen da Ordizian. 943880084.

konpartituak

➡ Pertsona bat behar da Bilbon, Deustu auzoan, pisua osatzeko. 605704689 - 943888304.

➡ Bi lagun behar dira Bilbon pisua osatzeko. 943180128 - 943180422.

➡ Pertsona bat behar dugu Leioan pisua osatzeko. Banakako gela eta Unibertsitateetik gertu. 943028590

➡ Ikasleekin etxea konpartitzen dugu Ma-drilen. 914595390.

Negozioak

traspasoa

➡ Jubilazioa dela eta, martxan dagoen lokal komertziala eta negozioa traspasatzen dut Ordizian, 330 m², oso zentrikoa eta erabat ekipatua, bezero ugarirekin, errenta txikia, apartakaleku galanta ondoan eta beste apartekoak. Edozein tailer montatzeko ezin hobea: autoak, motorrak, nekazal-makineria... Salneurri guztiz interesgarria. 943161835.

Ibilgailuak

salgai

➡ Ford Galaxi TDI monobolumena salgai. 7 plazakoa. SS-AZ. Umeentzako siloi integratua dauka. 2.300.000 pezeta. 639179821.

➡ Opel Corsa GSI salgai. Engantxearekin. SS-AF. 943161254.

➡ 99ko kroseto Kawasaki motorra salgai. 627411764.

➡ Peugeot 205, 1.9. diesela, salgai. SS-AZ. 658759471-

➡ Hyundai coupe 2000 salgai. 16V. SS-X matrikuladuna. Extrekin. 619460248. Iban.

➡ Citroen ZX diesela salgai. SS-AU. CD-a eta engantxea. 659511578. Enrike.

➡ Peugeot 205 1,8 diesela salgai. SS-AZ, CD irratiarekin. 675.000 pezeta. Negoziazarriak. 699585779 Xabi.

➡ Honda Civic salgai. 1,4 I 16 v. 94 urtekoa. 699630809.

Bestelakoak

opari

➡ Hiru logela oparitutako nituzke. Ohe bakkarak. Zaharrak baina egoera onean. 943450697. Donostia.

salgai

➡ Trikitixa, soinu txikia, salgai. 943889410.

➡ Ontzi-garbigailua, Fagor markakoa, salgai. Erabili gabea. 678934438. Izar.

➡ Gurdi-denda salgai. Sukaldea, 2 logela eta hozkailuarekin. Egoera onean. 150.000 pezeta. 943885923.

➡ Olivetti idaz makina elektrikoa salgai. 20.000 pezeta. 943882278.

➡ Negutegi edo inberraderoak alokatzen dira. 943883157.

➡ Ohea egiten den tresillo bat, bi butaka eta egongelako mahaia saltzen dira. 670422051.

➡ Pertsona ezinduek mugitzeko garabia edo grua salgai. 943886834.

Lana

eskaerak

➡ Neska bat behar da Beasainen, bi haur ikastolara eraman eta etxeko lanak egiteko, 7,30etatik 2,30etara. Iraila hasieran hasteko. 699665544. 14:00etatik 20:00etara deitu.

➡ Idiazabalen emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943187267. Gauetz deitu.

➡ Horts Klinika batek behar du: klinika laguntzailea eta/edo errezepzionista. Esperientziadunak eta euskaldunak. 943889287 (10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara).

➡ Neska bat behar da etxeko lanak egiteko, orduka. 650728717.

➡ Fruta landaketa ekologikoa zaintzeko, astean egun batez lan egiteko pertsona bat behar da. 943161945.

➡ Neska edo emakume bat behar da Beasainen, 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943881282 - 943887652.

➡ Emakume euskaldun bat behar da Beasainen. 943882127.

➡ Emakume edo neska euskalduna behar da Ordizian ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 20:00etatik aurrera deitu. 943161273.

➡ Zerbitzaria behar da Gaintzan. 943886243.

➡ Ordiziako Gabinetetik Psikopedagogikoko batek Psikologia Klinikoko eta Edukatiboan espezializatutako pertsona bat behar du. 943162129 - 943 161373.

➡ Klinika laguntzaileak, garbitzaileak eta sukaldariak behar dira. Kurrikulumak helbide honetara bidali: Eulen. Esteban Lasa kalea, 2. Beasain.

➡ Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. Astean 3 egunetan. 943887187 - 609353024.

➡ Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko 24-30 urte arteko neska behar da. 943888182. 15:00etatik 16:30era deitu.

➡ Mezulariak behar ditu Goierriko mezulari-zerbitzu batek. 627496091.

Animaliak

salgai

➡ Seter arrazako txakurkumeak salgai. Pedigree onarekin. 627411764.

➡ Schnauzer txakurra opari. Handia. Beltza. Kartila eta guzti. 943881411.

musika

LAZKAO:

Abuztuak 30, Amaia eta Ruth trikitilariak, Maizpideko zinema-aretoan, 21:00etan.

ORDIZIA:

Uztailak 28, Habeas Corpus eta Caotico, Arboledan, 23:00etan.

Uztailak 28, Tirri Tarra fanfareak eskaintako 'Re+Fa zuzenean' ikuski-zun-kontzertua.

bertsoak

LAZKAO:

Abuztuak 7, 'Ai Martin' bertso-musika-antzerkia, Eñaut Agirre eta Xabier Legarretaren eskutik, Maizpideko zinema-aretoan, 20:00etan.

bestelakoak

LAZKAO:

Abuztuak 21, 'Kontu-kontari, kantu-kantari' Doroteo Zobaranen eskutik, Maizpideko zinema-aretoan, 21:00etan.

Abuztuak 28, Koldo Ameztoty ipuin-kontalaria, Maizpideko zinema-aretoan, 21:00etan.

antzerkia

ORDIZIA:

Uztailak 20, Urrup antzerki taldearen, 'Bernarda Albarren Etxea' lana, Barrenan, 22:15ean.

Uztailak 23, Kafe antzerkia: '3 para no y cos' taldearen 'Momentos para recordar' lana, Barrenan, 22:15ean.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Uztailak 21-22: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Uztailak 28-29: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Abuztuak 4-5: Atorrasagasti
(Bustuntza auzoa - Ordizia). 943 882938

Abuztuak 11-12: Cuesta
(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Abuztuak 18-19: Jauregi
(Santa Maria kalea, 2 - Ordizia). 943 160949.

Abuztuak 25-26: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.

Irailak 1-2: Laurnaga
(Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.

dantza

ORDIZIA:

Uztailaren 25, Kieveko Gorlitza taldea, Domingo Unanue plazan, 22:30ean.

Uztailaren 26, Poloniako Zespól Dantza Ludowego taldea, Domingo Unanue plazan, 22:30ean.

Profesionalen pilota partidak

Uztailaren 26an profesionalen pilota partidak jokatuko dira Ordizian, arratsaldeko 6etatik aurrera. Bi partida izango dira. Lehenengoan, Beloki II-Galarza VI Saralegi-Medinaren aurka; 2.enean, Esain-Beloki Olai-zola-Zearraren aurka.

OINETXE

oinetako konponketa

Konponketak 24 ordutan

Oinetakoak	Kolorezko
Poltsak	kremak
Gerrikoak	Kolorezko
Zorua	tinteak
Tindaketa	Plantilak
Brotxeak	Lokarriak
Errematxeak	Larruzko lo-
Zuloak	karriak

Ordutegia: 6:00-14:00 eta 16:00-20:30

Kale Nagusia, 44 Tel.: 943 88 90 89
BEASAIN

iñAUSTI



KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
943 88 43 01 OLABERRIA

AKADEMIA

Goierriko Akademia integrala

Joan Iturralde, 5 943 160 120

BEASAIN

ikastekakademia@latinmail.com

SAN BENITO IKASTOLA

LAZKAOKO
Hautzaindegia-ludoteka

Zabalik urte osoan zehar:

- * **Hautzaindegia:** 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
- * **Jantokia:** 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
- * **Hautzaindegia-Ludoteka:** 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- * **Kangurak:** Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.

943 88 08 00 - 626 91 80 76

ERREKUPERAKETAK

- * Unibertsitate-maila
- * Batxilergoa
- * DBH
- * Selektibitateak

ESKOLA LAGUNTZA

- * Maila eta arlo guztietan
- * Banakako laguntza etxean

TAILERRAK

- * Ortografia
- * Irakurmena - idazmena
- * Kalkulua, logika
- * Testu komentaketa

Presta zaitez gurekin Goierriko Ingeñiaritza Eskolan sartzeko!
Etorri informaz ioa jasotzera!



1970eko Ordiziako jaiak

Ordiziako danborrada eguneko argazkia da, 1970. urte inguruan ateratakoa.


Zutik, ezkerretik eskuinera:
Mucientes, Rosa Mujika, Rosa Asteasu eta Begoña Ormazabal.

Makurtuta: Ima Mujika eta Loli Gonzalez.

batasuna

Ordiziar eta binitari guztioi jai zoriontsuak opa dizkizuegu

ORDIZIA



BIÑASPRE

Oporretara joan aurretik eskuratu Biñaspren zure brontzeatu eta edertasun programa

Zure eguzkitarako produktuak erosteagatik, opariak ditugu!

USAINDEGIA
OPARIAK
ESTETIKA ZENTRUA

K. Nagusia, 8

☎ 943 88 13 37

ORDIZIA

Arrandegia

Goen

☎ 943 888 633
Kale Nagusia, 6
ORDIZIA



Poltsikokoa: ☎ 616 435 204

Jai zoriontsuak denoi!

ITZIAR

☎ 948 467 406
Zumalakarregi, 2
ALTSASU

Pub **Zorionak !!**
Amonane

Amonane
Ordizia

Ordizia

ETXETXO TABERNA

Pintxo bereziak!

Jai zoriontsuak pasa ditazuela opa dizuegu!

☎ 943 88 28 83
Plaza Nagusia **ORDIZIA**

ARANTXA bodegaia



☎ 943 88 72 46
Ordizia Kalea, z/g
ORDIZIA




Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28
☎ 943 16 02 48
ORDIZIA



Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:
Lorategiko eta
terrazako altzariak,
kolore ezberdinetako
aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42

LAZKAO

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



Eragilea:

ARIN ERAIKUNTZAK S.L.

Informazioa eta Salmenta:

943- 49-38-73

Kalitatea

Diseinua

Paregabeko Ingurua

ETXE BIZITZA ADOSATUAK (SEGURAN)



arquimedia

PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHO ISOLATZAILEAK

ZERBITZUA - KALITATEA - BERMEA

BRINKOLA



PVC eta aluminiozko leihoetan nahi adina aukera, baita egur tonuak imitatzen dituztenak ere
AENOR ziurtagiria, MAPFRE aseguruia eta PERFET 10 bermea ditugu: lan onaren bereizle argiak

Tailerra: Legazpi-Zumarraga errepidea z/g
☎ 943 73 37 00

Denda: Artiz kalea (Orbegozoko aldapan)
☎ 943 72 64 53 ZUMARRAGA